

Kokein taldea

Diskoa aurkeztu du Aretxabaletan
KULTURA, 23



Preferenteko hiru taldeek irabazi egin dute

UDAK 3-1 irabazi du, Aloñak 3-0 eta Mondrak, berriz, 3-1
KIROLA, 12-13

Jabier Retegi

Eusko Ikaskuntzako lehendakaria
GEUREAN, 5



ASTELEHENEKO Goienkaria

ASTELEHENA • 2005eko abenduaren 19a • 2. urtea • 83. zenbakia • 0,90 euro

Andoni Egañak laugarren aldiz jantzi du txapela

BECeko finalean 13.000 entzule izan ziren zortzi bertsolarien lanaz ederki gozatzen

Atzo, domekan jokatu zen Barakaldoko Bilbao Exhibition Center-en Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finala. Bizkaia Arena aretoa lepo egon zen, 13.000 ikusle batu ziren finalerako, eta gozatu egin zuten bertsolarien lanarekin. Zortzi finalistek euren bertsoak bota ostean, Unai Iturriaga eta Andoni Egaña izan ziren buruz buruko lehia iritsi zirenak eta azken horrek jantzi zuen azkenean txapela, laugarren aldiz. **20-22**

TXAPELDUNAREN AGURRA

Lazkao-Txiki ta seme-alabak aipatuak daude bapo andrea ejem maite det baina ahal dela oholztatik kanpo erditu gintun harek hain xuxen doble sufritzen dulako aurten aitaren baimenarekin amaz gogora beharko ama bakarria omen da baina gu zortzion amentzako.



ARGAZKIPRESS

IMANOL LAZKANOK JANTZI ZION TXAPELA EGAÑARI

Orain gutxira arte Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko presidente izan den Imanol Lazkanok malkoei eutsi ezinda jantzi zion Egañari laugarren txapela. Entzuleen txalo zaparrada luzearen ostean txapela bere eta gainontzeko finalista guztien amei eskaini zien Andoni Egañak.

Santamas feria Arrasaten

Eguenean egingo dute, 10:00etan hasita, herriko kale nagusietan **8**

Bizikletaren erabilpena sustatzeko jardunaldia bihar Arrasaten

8

Asier Altuna bergararra zuzendari berrien Goya sarietarako izendatu dute

23

OPORRETAN URTARRILERA ARTE

Kaixo, irakurle. Gabonetako oporraldia dela-eta, ASTELEHENEKO GOIENKARIAK ere etenaldia egingo du.

Hurrengo zenbakia urtarriaren 9an kaleratuko dugu. Bien bitartean, Gabon zoriontsuak igaro ditzazuela. Urte berri on!

Eta orain presta zaitez
ITALIAZ gozatzeko

RASKA SUPER AMARA
Erositako 10€-engatik raska bat

300€
150€
75€

¡Deskontuak ere zeure erasketan!
Aurorako DVD-ak

San Lorenzo Poligonoa • Anillaga Kalea 18 • Bergara

KIZU
wear & ski experiences
Hernani kalea 17. DONOSTIA Tel.: 943 42 75 84
(Alderdi Eder ondoan)

ESKIAN ESPEZIALISTAK

DENDA BERRIA DONOSTIAN

WIPAC ATOMIC SWISSSTAR
MATADOR TSUNAMI
FIRE & ICE

KIROLAK ZUBIAURRE
Florida kalea 2 GASTEIZ

GEUREAN

- Joseba Permach Arrasaten izan zen egubakoitzean Irati tabernaren 25. urtemungan | 5
- Nafarroako kalitatezko hainbat jaki erakutsi zituzten zapatuan Bergaran egindako azokan | 7

Bergarako bi gaztek eguzki plakak instalatzeko enpresa sortu berri dute | 6

ABIADURA HANDIKO TRENA DEBAGOIENEAN

4.000 MILIOI EURO | AHT-REN PROIEKTUA EGITEN HASTEKO PARTIDA HORI ONARTU DIO ESPAINIAKO GOBERNUAK JAURLARITZARI

Urte berrian hasiko dira AHT egiten, eta ibarretik igaroko da

Hogei urteren ostean, AHTk badauka aurrekontu propioa: 4.000 milioi euro. Kupertik kendu dituzte

Kanpanzarpetik sartuko da; Angiozarrera lurpetik jarraituko du; eta Untzillaraino lurpetik joango da

Marijo Deogracias

“Euskal Herria historikoki pasabide pribilegiatua izan da, bai kokapen geografikoagatik eta bai biztanleen borondateagatik”, zioten orain dela pare bat urte (2003ko azaroan) EAEko unibertsitateetako errektoreek eta beste hainbat erakundetako ordezkariak elkarrekin argitaratutako agiri baten. Arrazoi hori tarteko, *Euskal Y*-aren aldeko aldarrikapena egiten zuten: “Abiadura handiko trenbide sare berria behar dugu, etorkizunik

handieneko garraioaren bidez EAEko hiriburuekin eta Europarekin lotzeko (...). Euskal Herria Europako garraio sareetatik kanpo uztea erabaki larri eta historikoa da, eta etorkizun beltza iragartzen digu (...). Erakitzen ez bada, gure etorkizun ekonomiko eta soziala kolokan geratuko litzateke epe luzera”. Argudio horixe bera entzun dugu asteen ere Eusko Legebiltzarreko eta EAJ alderdiko hainbat kideren ahotik. Espainiako Senatuan Zapateroren aurrekontuei aurkeztutako betoa bertan behe-



AHTren Debagoieneko ibilbiderik gehiena lurpetik izango da. Udalatx azpitik sartuko da Elorrio aldetik gurera.


ra geratu da, EAJk aurka bozkatu duelako. Negoziazio neketsua egin ostean etorri zen EAJren erabakia, eta ondotik, AHTren aldeko aurrekontua aurreikusitako du Zapateroren gobernuak datorren urteko Espainiako aurrekon-

“Euskal Herria historikoki pasabide pribilegiatua izan da”

tuetan: 4.000 milioi euro. Magdalena Alvarezek, Sustapen ministroak, orain dela pare bat urte iragarri zuen AHT egiteko aurrekontua igo egingo zela: “AHTren aurrekontua %64 igo da aurreko urtearekin alderatuz.

Abiadura Handiko Trenak ibarreen eratu du ‘y’ bat, Arrasate-Bergara-Aramaio tartean

- **Eskoriatza-Arrasate:** 9 km-ko zatiaren proiektua idaztea 1.121.304,5 eurotan onartu zen.
- **Arrasate-Zornotza:** 26,3 km-ko zatiaren proiektua idaztea 2.730.000 eurotan onartu zen.
- **Arrasate-Ezkio Itsaso:** 30,7 km-ko zatiaren proiektua 2.575.000 eurotan onartu zen.
- **Eskoriatza-Legutiano:** 7,5 km-ko zatiaren proiektua idaztea 964.950 eurotan onartu zen. Lan horiek egiteko plataformaren aurrekontua 278,7 milioi euro da.
- **Udalerrietako informazioa:** Berrikusketa eginda dagoen herri gehienetan jasota dago AHTren proiektua arau subsidiarioetan, baina batek ere ez du inolako xehetasunik jasotzen.



ABIADURA HANDIKO TRENA DEBAGOIENEAN

Onartutako aurrekontuak 171 milioiak gaitzen ditu". Abiadura Handiko Trena egitea dirutan kostako dena ez dago inon zehaztuta; zenbaki dantzaldia izugarria da urte batetik bestera. Roberto Bermejo EHUko doktorea ekonomia aplikatua eta ekonomia iraunkorrean adituak dio "proiektua 6.000 milioi euro inguruan dabilela". Nuria Lopez de Gereñu Garraio sailburu berriak, berriz, "bilioia" aipatu zuen kargua hartu eta handik gutxira egindako prentsaurreko baten.

DEBAGOIENEAN LEHENENGO Aurrekontua zehaztuta egon edo ez, dakiguna da Jaurlaritzak datorren urtean 4.000 milioi euro izango dituela AHT egiten hasteko, eta, hain justu, gure ibarretik eta Gasteizera doan zatia erekin egingo duela. Dagoeneko egin dituzte hainbat lagin, eta Vigiconsult, Euroconsult Geotecnia eta Icyf enpresek eratu-tako aldi baterako enpresak 7,5 km-ko tartearen ikerketa tekniko egin du Eskoriatza eta Legutiano artean: 964.950 euroko aurrekontua. Trenaren zati

hori egiteko dagoeneko onartuta dago 278,8 milioi euroko aurrekontua, lanak egiteko plataforma eraikitzeko.

Osterantzean, eta Debagoienez *Euskal Y*-ak izango duen inpaktuaz jardunda, Antzuolan, esaterako, ia 5 km-ko ibilbidean zehar 1,5 km-tan zehar joango da trena lur gaitetik. Ibilbidearen beste zati osoan lurpean joango da.

Baina hori adibide bat baino ez da; izan ere, AHT Iguritik (Elorrio), Kanpazartetik, sartuko da Debagoienera eta Donostiarako noranzkoan, Angiozarreraino lurpetik jarraituko du. Gauza bera egingo du Gasteizera joango den trenak ere: Untzillaraino lurpetik igaroko da. Udalatx mendiaren azpialde osoa igaroko du AHTk, eta *i grekoa* izango duen bidegurutzea osatuko du bailaran.

**Eskoriatza-
Legutiano ikerketa
geoteknikoa: 7,5
km/964.950 euro**

**Antzuolako 5
km-etatik, lur
gaitetik doa 1,5 eta
lurpetik 3,5 km**

Euskal Herrian inoiz egin den azpiegitura erraldoiena

*Jaurlaritzako
Garraio saila eta
Espainiako
Sustapen
Ministerioa ados*

Gasteiz-Arrasate-Bergara eta Arrasate-Bergara-Bilbo Espainiako Sustapen Ministerioak hartuko ditu bere gain, eta Gipuzkoako tarte nagusia, berriz, Jaurlaritzak. Horrela adostu zuten joan zen astelehenen bi gobernuek, eta 4.000 milioi euroko aurrekontua adostu dute lanak egiten hasteko.

Sustapen Ministerioaren planen arabera, Gasteiz-Arrasate-Bergara zatia litzateke egiten lehenengoa, hurrengo urtearen hasieran, eta 2006ko amaieran Arrasate-Bergara-Bilbo zatia.

Hitzarmen horren gainean esandakoak eta AHTren alde aritu diren hainbat adierazpen batu ditugu; izan ere, EAJren hainbat ordezkari aritu dira hedabideetan adierazpenak egiten, lortutako akordioaren garrantzia azpimarratzen.

"22 urteren bueltan EAJren hainbat saiakeraren ostean, Espainiako Estatua azpiegituren proiektu erraldoi baten inplikatu da", adierazi zuen martitzenean Iñigo Urkullu EBBko bozeramaileak. Joxe Joan Gonzalez de Txabarri

Gipuzkoako diputatu nagusiaren iritziz, "lehenagoko eta ondorengo Euskal Herri bat egongo da, bai berrikuntzaren aldetik, baita garraio iraunkorraren ikuspegitik ere. Lurralde honek bestelako itxura bat hartuko du *Euskal Y*-arekin". Miren Azkarate Eusko Jaurlaritzaren eledunak dioenez, "AHT funtsezko tresna izango da herriaren garapen ekonomiko eta soziala lortze aldera".

Rodolfo Ares PSE-EEko koordinatzailearen ustez, "*Euskal Y*-a izango da herri honek inoiz egin duen azpiegiturarik garrantzitsuenak. EAE kohesio-natuko du". Yolanda Vicente Arabako senatari sozialistak adierazi duenez, "gobernuak, bere aginduak betez, Jaurlaritzarekin hitzarmenak sinatzeko jarrera erakutsi du, *Euskal Y*-a betetzea ekarriko dutenak."

**"Lehenagoko eta
ondorengo
Euskal Herri bat
egongo da"**

• AHT GELDITU! ELKARLANAK BATZARRA EGIN DU



JOSETXO ARANTZABAL

Zapatuan elkartu ziren Bergarako kultura etxean Elkarlaneko ordezkariak.

Urtarrilaren 28an batzar berezia egitea adostu dute

Taldeetara bideratu dute hausnarketa eta hilabete barru erabakiko dute zein pauso eman Abiadura Handiko Trenaren kontra, urte hasieran egingo duten batzarrean

Bi hitzordurekin amaitu zuten zapatuan urteko batzarra AHT Gelditu! Elkarlanean taldekoek: lehenengoa abenduaren 29an, urteko balorazio prentsaurrekoa; eta bigarrena urtarrilaren 28an, batzar berezia egiteko.

Goiz osoa eman zuten batzarrean AHT Gelditu! Elkarlanean taldekoek urteko batzarrean. Bergarako kultura etxean hogeitau elkartetako ordezkariak izan ziren; tartean, Ekologistak Martxan, Asanblada, Angiozarko Batzarra, LAB eta EHNE sindikatuak, Aralar, Batasuna, Zutik eta EAE-ANV alderdiak eta Itsasondoko Udala.

Batzararen helburua 2005eko urtea nola joan den baloratzea zen. Jendaurrekoa hilaren amaieran egingo duten arren, Elkarlanean-eko kideek aurreratu zigitenez, "Espainiako Gobernuak Jaurlaritzari onartu dizkion 4.000 euroak direla eta, lehenengo eta behin salatu nahi dugu nola daitekeen interes orokorreko proiektua izanik Jaurlaritzak hartzea beregain proiektu horren ardura, horrelakoetan kompetentziarik ez duenean. Komeni izaten denean badirudi legeak interpretazio desberdinak dituela. Horrekin batera, bazirudien kupoaren bitartez

hiritarrok orain arte ordaindu duguna itzuli egingo zigitela era horretara, baina horrela beharrez, 4.000 milioi horiek berriz ere hiritarren poltsikoetatik aterako dira".

ZORTZI MILIOI, HELEGITEAK AURRERA JARRAITZEKO

Zapatuko batzarrean jakin zuten Elkarlanean ari diren taldeetako ordezkariak, epaitegiak zortzi milioi euro eskatu dizkiola taldeari, "babesik ezagatik", jarri zuten helegitearekin jarraitu nahi badute.

Antza denez, Elkarlanean-ek Jaurlaritzak egin zituen lizitazioen kontra jarritako helegitea atzera bota zuen epaitegiak, "instituzioen arteko arazoa" zela argudiatuta. Hori dela eta, Elkarlanean-ekoek "babesik eza" alegatu zuten, eta orain, zortzi milioi eskatzen dizkiete aurrera egiten jarraitu nahi badute.


Horrez gainera, 1991n Lurralde Sektore Planaren kontra jarritako helegitearen erantzunaren zain jarraitzen du Elkarlanean taldeak: "Oraindik ez digute ezer adierazi", azaldu ziguten AHT Gelditu! Elkarlanean-eko kideek.

8 milioi euro eskatu dizkie epaitegiak, helegitearekin aurrera jarraitzeko

"4.000 milioi horiek berriz ere hiritarren poltsikoetatik aterako dira"

'Euskal Y'-aren gainean hainbat datu

- **1989an, 901.518,1 eurotan** (150.000 milioi pezeta) zenbatu zuten *Euskal Y*-aren kostua.
- **2000n, 3.005.060,52 eurotan** (500.000 milioi pezeta) zenbatu zuten *Euskal Y*-aren kostua.
- **2005eko abenduan, 4.000 milioi euroko** aurrekontua onartu dute, bakar-bakarrak, lanak hasteko.
- **1.175 kamioi eta 5.375 auto gutxiago** ibiliko dira errepidean, Jaurlaritzaren iritziz. AHTk "1.902 auto kenduko ditu errepideetatik", Roberto Bermejo adituaren esanetan.
- **Ibilbidea denboran:** Bilbo-Donostia: 38 min; Bilbo-Gasteiz: 27 min; Gasteiz-Donostia: 34 min.
- **2002aren amaieran** hasi zituzten ikerketa geoteknikoak eta 2004aren amaieran egin ziren azkeneko seiak.



GOBERNUZ KANPOKO ERAKUNDEAK | BIDEZKO MERKATARITZA ETA ELKARTASUNA SUSTATZEKO AZOKAK

Elkartasunak eta bidezko merkataritzak bat egin dute azoketan

Gobernuz Kanpoko Erakundeek produktu eta elkartasun proiektuak kaleratu dituzte asteburuan, jendearen interesa erakarri nahian

Jon Berezibar

Azoka nagusia Oñatin egin dute, izan ere, bidezko merkataritza postuez gain, Estatu mailako GKEen ordezkariek ere izan dira han. Hala ere, bailarako gainontzeko herri ia gehienetan elkartasun taldeek eta Harremanek dendak ipini dituzte.

“Jendeari kosta egiten zaio Eroskiko bidezko merkataritzako dendara gerturatzea, eta horregatik urtean behin produktu hauek kalera ateratzen ditugu”, dio Jabi Etxanizek, Antzuolako Anelkar GKEko partaideetako batek. Han, Bergaran bezala, Harremaneko produktuekin postuak ipini dituzte asteburuan. Azken horretan, Mariaren Lagundiko FISC taldekoak izan dira arduradunak. Han batu dutenarekin, Kongon, Kiongo herrixkan haurrentzako ikasgela berriak egin gura dituzte. Arrasaten, berriz, Ferrerías kalean denda

finkoa ipini dute, eta Gabonak iraun bitartean zabalik egongo da.

Elkar Hezi ikastetxeak antolatuta 12 taldek ipini zituzten postuak Oñatiko plazako arkupeetan. Bidezko merkataritza produktuez gain, Komite Internazionalistek, Alboan eta Haurralde erakundeetakoek euren proiektu eta lanak aurkeztu zituzten oñatiarrei. Aurten, gainera, Hirugarren Munduan bizi diren emakumeen egoeraz arduratu gura izan dute bereziki. Hala, haien egoeraren gaineko hainbat informazio panel eskegi zituzten. Ikasleek eman zuten laguntza Elkar Heziren azoka solidarioan. Oro har, Hirugarren Munduan heziketa eta hezkuntza programak finantzatzeko erabiliko da dirua.

Azokak datutan

• POSTUAK

Oñatin 12 ipini ditu Elkar Hezik ikastetxeak. Arrasaten, Antzuolan, Aretxabaleta eta Bergaran Harremaneko produktuekin denda bana.

• ERAKUNDEAK

Debagoieneko Harreman, Bergarako FISC, Oñatiko Banoia, Antzuolako Anelkar eta Aretxabaletako Hiruatxek hartu dute parte.



Batutakoarekin, besteak beste, Kongoko Kiongo herrian ikasgelak eraikiko ditu FISCEk.

JOSETXO ARANTZABAL

• ZERGATIK DIRA GARRANTZITSUAK ELKARTASUN AZOKAK?



ANA CARPINTERO | BERGARA

“Modu bakarra da bertako ekoizleek prezio duinetan zerbait saltzeko, eta horregatik egin behar da ahalegin berezia. Gainera, garapenerako proiektuetan ere laguntzeko balio dute azokek”.



MARTIN JAUREGI | OÑATI

“Elkar Hezitik hainbat GKE gonbidatu ditugu, ikasleek elkartasun balioak modu praktikoa ikas ditzaten. Gazteek ikusi behar dute eurek ere zeresana daukela eta parte har dezaketela”.



ENCARNI AROTZAMENA | OÑATI

“Jendearien elkartasuna beharrezkoa da. Bigarren eskuko azoka antolatu dugu guk, eta Guatemalako indigena talde bati heziketarako bekak finantzatu gura dizkiogu”.

Ehunka herritarrek eskatu zuten Jon Agirre aske uztea

Senideek oraindik ez dute galdu datorren urterako etxera ekarriko duten esperantza

Jon Berezibar

Ehunka herritarrek eta Aramaio eta Arrasateko udaletako ordezkariek bat egin zuten zapatu arratsaldean Jon Agirre presoaren aldeko herri ekimenak egingako manifestazio deiare-

kin. Aramaioko presoak 64 urte ditu eta larri dago gaixorik. Hori dela-eta, uztailean 92. artikulua aplikatu zuten eskatu zuten, hau da, gaixotasun larriarengatik askatasuna eskatzeko, baina ukatu egin zioten. “Oraindik ere esperantza daukagu ea datorren urterako-edo etxera ekarriko duten”; horixe adierazi zuen Mari Terek, presoaren arreba, manifestazioa hasi baino minutu batzuk arinago. “Jon egoera oso larrian dago eta adinez aurrera doala, okerrera egingo du”, azaldu zuen Mari Tere Agirrek. Bes-

teak beste, hipertentsio artetrial, diabetes, neuropatia diabetikoa, miopia eta bihotzeko aritmia jota dago Aramaioko presoak. Gainera, duela gutxi ebakuntza egin diote. Zapatuko agerraldiak instituzio eta herriko taldeen babes zabalak izan zuten. Aramaio eta Arrasateko alkatez gain, EAJ, Bata-suna, EA, EB, Aralar, Herri Anitza, EAE eta Zutikeko ordezkariek izan ziren, ELA, LAB, CCOO, EHNE eta ESK sindikatuetakoekin batera. Deialdiarekin bat egin zuten herriko beste hainbat taldek ere.



Aramaio eta Arrasateko udalbatzek babestu zuten zapatuko agerraldia.

JOSETXO ARANTZABAL



JOSETXO ARANTZABAL

Arrano elkarte parean, kalea jendez beteta, egin zuen ekitaldi politikoa Joseba Permachek.

"Alderdi guztiek dakite gatazka konpontzeko giltza autodeterminazioa dela"

Orain dela 25 urte bezala, uneotan aldaketa politikoen atarian egonda, autodeterminazioaz mintzatu zen Permach

J. B.

Arrasateko Ezker Abertzaleak eta Irati tabernak eta elkarteak aurten 25 urte bete dituztela-eta, ospakizunetan jarraitzen dute bazkideek. Asteburuko ekitaldien barruan Joseba Permachek saio politikoa egin zuen eta bertso afaria izan zuten ostean. "Garrantzitsuak dira urteurren hauek, gaur egun bizi dugun une politikoa ulertzeko balio digute-

lako". Mende laurdena atzera eginda, orduan legez kanpo egonda, elkarlananean aurrera egitea lortu zutela azaldu zuen ezker abertzaleko buruak. Gaur egun ere alderdi politikoak ilegalizata eta Irati tabernak epaileen aginduz bahituta jarraitzen duela gehitu zuen. "Duela 25 urte Herritar Batasuna ilegaltasunean jarri zen martxan eta orduan ere marko politikoa inposatu ziguten, gaur egun erabat agor-

tuta dagoena", zioen Permachek. Egungo une politikoari begira, "berri ere aldaketa politikoen atarian" gaudela adierazi eta ohartu zuen: "Gatazkaren konponbiderako Euskal Herriaren autodeterminazio eskubidea da giltza, Bide Eginez prozesuan jasotzen den moduan. Hain zuzen ere, Ezker Abertzaleak 25 urte-tan mantendu dituen ideiak".

ERAKUSKETA HISTORIKOA

Bihar, elkarteak eta ezker abertzaleak herrian egindako ibilbidea biltzen duen argazki erakusteka ipiniko dute Irati tabernan. Ekitaldi horrekin amaituko dituzte ospakizunak.

Gatazka konpontzeko PSOEren keinu baten zain daudela dio Erraztik

Bergarako alderdikideei egindako omenaldi ekitaldian, PSEk aurrekontuei emandako bermea baloratu zuen

Jon Berezibar

Egubakoitzean PSE-EEK datoren urterako aurrekontuei ipinitako zuzenketak erretiratu ostean, begi onez ikusten du Begoña Erraztik sozialisten jarrera, Bergaran alderdikideekin egindako bileran adierazi zuenez. Zapatu eguerdian bildu ziren Eusko Alkartasuneko burua eta Esther Larrañaga Ingurumen Sailordetza burua Bergarako afiliatuekin. Esandakoen artean, "PSEk behingoz etengabeko ezezkoaren dinamikari uko egin" diola adierazi zuen, "jabetu direlako euren ekarpenekin datoren urterako aurrekontua hobetu egin daitekeela".

Une politikoaren gaineko hausnarketa egin zuen bazkideekin batera. Zera argitu gura

izan zuen EAko presidentek: "Lakuako Gobernuak sozialisten baiezkua eskuratzeak ez du esan nahi gero Zapateroren Gobernuari kontu eman behariko diotenik". Horren haritik, "orain PSOEren aldetik gatazka politikoaren konponbiderako keinuren bat espero" duela gaineratu zuen.

EHAK-KOEI DEIA

Amaitzeko, aurrekontuen aferrari dagokionez, EHAK taldearen gainean egin zituen adierazpenak. Haien baiezkua espero du hilaren 29an Legebiltzarrean egingo duten bozketan, ez luke-eta ezetza ulertuko, "edukiari buruzko benetako eragozpenik ez daukatelako". Hala ere, ez du uste ezezkoa ematekotan atzerapauso larria izango denik.



JON BEREZIBAR

Alderdikideekin egindako bileran une politikoa aztertu zuen Erraztik.

JABIER RETEGI | EUSKO IKASKUNTZAKO LEHENDAKARI KARGUAN BERRETSI EGIN DUTE

"Proiektu aurrerakoien inguruan batzeko balio beharko luke Eusko Ikaskuntzak"

Marijo Deogracias

Zapatua ezker, bigarren izendatu dute Eusko Ikaskuntzako lehendakari Jabier Retegi. Hala, datoren hiru urteetarako planez jardun dugu Retegirekin.

Zorionak.

Eskerrik asko. Zapatuko ezohiko batzarrek luze jo zuen eta diskurtso gogorak egin zenituzten bi kandidatuek.

Parte-hartze zabala egon zen; galdera asko egin zituzten bazkideek; oso ondo erantzun zuten.

la botorik gehienak eskuratu zenuen. Aurreko lana eskertzeko modua izan da?

Hori da. Gure erronka izan da Eusko Ikaskuntza martxan jartzea mende berriari begira, eta batzar nagusian ikusi da, egon den parte-hartzearekin, jendeak erantzun egin duela. Ahultasunak ere geratu ziren agerian, eta horiek ere, aurrera begira, kontuan hartuko ditugu. Ikerketa zentroak bultzatzea eta euskal ikerleak elkarteratzea dituzu helburu. Nola lortu gura duzue hori guztia?

Guk ezin dugu egin ikerketa

zentroek eta unibertsitateek egiten dutena, baina bete genezake Euskal Herriaren dagoen hutsune handietako bat: denek elkarrekin aritzeko dagoen bilgune izatea. Proiektu aurrerakoien inguruan batzeko balio beharko luke Eusko Ikaskuntzak.

Nondik hasiko zarete lanean?

Proiektuetako batzuk dagoeneko hasita daude. Orintsu ospe batzorde soziala hasi dugu, Euskal Herriko ospe handiko hogeitabat lagunek osatua, eta epe luze-bera begira hasi dira lanean.

Elkartea eza gutzen ez duenak nola har dezake parte?

Erakunde zabala da eta atek zabalik ditu edonork. 50 euroko urteko kuota ordaintzen da, eta parte hartzeko, ikerketak egiteko eta bestelako ekimenetan aritzeko aukera du bazkideak. Parte-hartzea ezinbestekoa da Eusko Ikaskuntza guztiona izan dadin.

Kide berriak izango dituzu zurekin lehendakaritzan?

Jose Luis de la Cuesta gipuzkoarra lehendakari-orde izango da; Gipuzkoako ordezkari legez Teresa del Valle egongo da eta Bizkaiko ordezkaria, berriz, beste hautagai-zerrendako hautagaia izango da. Eta Araban eta Nafarroan aurrekoek jarraituko dute.

Ordezkaritza bat ere sortu dugu atzerriko euskaldunentzat. Jose Ramon Zengotitabengoa durangarra izendatu dugu atzerriko euskaldunen lehendakari-



Jabier Retegi.

orde. Hura Chicagon bizi izan da 30 urtez eta Basque Studies-ko lehendakari izan da. Euskosarenen bitartez egingo du lan kanpoko euskaldun guztiekin.

HARITZ ETXANIZ | ALET TALDEA SL-KO KIDE

"Sektore hau laguntzei nahiko baldintzatuta dago"

Monika Belastegi

Mikel Almorza kidearekin batera energia berriztagarrien instalazioak egiteko enpresa sortu berri du Haritzek; eguzki plakena, hain justu. Zeregin horretaz jardun dugu harekin.

Eguzki plakak instalatzeko enpresa sortu berri duzue. Ez da oso hedatuta dagoen enpresa mota, geurean, behintzat..

Egia da, ez dago oso hedatuta. Egindako bideragarritasun planaren arabera uste dut ez dagoela besterik ibarrean. Garatzeko bidean dagon arloa da eta hori izan da ekiteko arrazoieta-ko bat. Mikelek, kideak, eta biok lantegi batean egiten dugu lan, baina beste zerbaiti ere ekin nahi genion. Hala, energia berriztagarriak instalatzeko enpresa eratzeari pentsatu genuen; eguzki plakena, hain justu.

Biok ikasi dugu Bergarako Miguel Altuna institutuan eta jakin genuen Urratsbat programaren bitartez enpresak sortzeko ahaleginean dabiltzanei laguntza ematen dietela. Hastapenotan asko lagundu digu Miguel Altuna eta 2005eko martxoan ezkeroratu daukagu Alet Taldea SL. **Zuen jardun bera duen beste enpresarik ez dago ibarrean, baina lehia-kortasuna, aldiz, bai. Hainbat ikastetxetan, esaterako, badaude instalazio fotovoltaikoak eginda.**

Bai, kanpoko enpresek egindakoak dira, baina ikastetxeetako gain, ez dago halako instalazio handirik. Egon daiteke neurri txikikoren bat, norbaitek txabolaren baten-edo jarritakoa, baina handirik ez dut uste. Hori fotovoltaikoaren kasuan, hau da elektrizitatea sortzeko instalazioen gainean.

Eguzki energia termikoari dagokionez, instalazio termikoak ere badaude, ura berotzeko erabiltzen direnak, hain zuzen, eta ibarreko kirol-gune batzuetan jarrita daude, horiek ere kanpoko enpresek jarrita.

Dagoeneko egin dituzue bi instalazio.

Irailean Fagor Automationen egin genuen 5 kilowatteko instalazio fotovoltaikoa. Eta Bergarako Metagra lantegian beste bat egin dugu azaroan.

Dirulaguntzek nahiko baldintzatuta dagoen sektorea da hau. Aurten, esaterako, atera dira Jaurlearitzarenak, baina badago beste finantzaketa bide bat, Madril-ek ematen duena, eta Gipuzkoara ez dira iritsi. Horrek, azkenean, eskaria geratu egiten du.

"Gero eta energia gehiago kontsumitzen dugu erosotasunaren bila"

Uste duzu nahiko kontzientzia dugula gure ibarrean?

Gero eta energia gehiago kontsumitzen dugu, gero eta erosotasun handiagoa nahi dugulako: berogailua, aire giro-tua... Kontsumitzen dugun energia horiek kutsagarriak dira, eta hori oso kontuan hartzekoa da. Eguzkiaren energiak, berriz, ez du kutsatzen. Nik uste dut badugula kontzientzia. Euskal Herrian estatuko beste leku batzuetan baino handiagoa dago; hemengo enpresetan ere beste leku batzuetan baino kalitate ziurtagiri gehiago dago.



MONIKA BELASTEGI

Metagra, aitzindari energia berriztagarrien arloan

Bost kilowatteko instalazio fotovoltaikoa egin du Alet Taldeak Bergarako Metagra lantegian, sare konexioa deritzona, eta elektrizitatea sortzea da haren zeregina. Haritzek azaldutakoaren arabera, ibarrean dauden enpresa pribatuen artean lehenengoetarikoa izan da Metagra halako instalazioa egiten: "Aitzindari izan da energia berriztagarrien aldeko apustua egiten, ingurumenarekiko duen konpromisoaren adierazgarri". Instalazioak sortuko ditu 6.000 kWh-ko eta ekidingo du 6.000 kilo CO₂-ren emisioa. Sortutako elektrizitate hori salduta 10 urtean amortizatu du instalazioa lantegiak.



JOSETXO ARANTZABAL

IBARREKO 9 LAGUNEK JASO ZUTEN EGUBAKOITZEAN DIPLOMA

Bergarako Jam aretoan banatu zizkieten diplomak, Ikaslan erakundearen Leonardo programaren bitartez atzerriko enpresetan praktikak egin dituzten ikasleei. EAEko 119 ikaslek egin dituzte praktikok. Debagoienari dagokionez, bederatzi egon dira atzerriari: Bergarako Marta Sevillano, Martin Zaitegi, Miren Basauri, Asier Gorriño eta Aitor Marauri; Antzuolako Hodei Aranguren eta Aretxabaletako Jon Atxa, Andoni Leibar eta Iker Atxaga, hain justu ere.



GOTZON ARZELUS

SUPER AMARA ZABALDU DUTE BERGARAN

Super Amara kateak supermerkatua ireki du Bergaran. San Lorentzo Poligonoan ireki dute, Amillaga kalean, eta eguaztenean egin zuten inaugurazio ekitaldia. Han izan ziren, besteak beste, Bergarako alkate Victoriano Gallastegi eta supermerkatuaren ardura-dunak. Eguaztena ezkeroratu zabalik dago eta dagoeneko hasi da jendea hurbiltzen. Amillagako sarreraz gainera, atzeko kaletik ere, Santalaitz kaletik badu sarrera Super Amara ireki berriak.

Enpresa orrialde honen babeslea:

M
MEMESA
INDUSTRIA HORNIDURAK

ARRASATE
TEL.: 943 712 425
FAXA: 943 712 297

ARETXABALETA
TEL.: 943 712 411
FAXA: 943 712 004

OÑATI
TEL.: 943 718 080
FAXA: 943 718 045

SEIN
grupotaldea
Euskadiko erreferente nagusia
industria horniduran



JOSETXO ARANTZABAL

Gabonetarako erosketaren bat egiteko aprobetxatu zuten azokara joandakoek.

Kalitatezko produktuak eroan zituzten erosleek

Zazpigarren Napar Feria egin zuten zapatuan Bergarako San Antonio auzoan, eta jaiotzen lehiaketako sariak banatu zituzten

Monika Belastegi

Nafarroako produktuak eta jaiotzak izan ziren protagonista zapatuan Bergarako San Antonio auzoan. Izan ere, zazpigarren urtez Napar Feria egin zuen auzoko Gure Ametsa Kultura Elkar-teak. Nafarroako Artisau Elikagaien Elkarteko kideen lagun dira Gure Ametsa elkartekoak, eta harreman horretatik sortu zen zapatuko feria egiteko ideia. Patxi Uribesalgok, Gure Ametsa elkarteko kideak, azaldukoaren arabera, "kalitate handiko produktuak dira eta herritarrei ezagutzera emateko asmoz ekin genion feriarri. Zazpi urte daragan antolatzen, eta dagoeneko herritarrek ezagutzen dituzte produktuak; etortzen direnean

gauza zehatzak erostera etortzen dira. Kontuan hartu behar da, gainera, Gabonen atarian gaudela, eta horri begira ere erosten dituzte jakiok", gehitu zuen Uribesalgok.

Sarituak

JAIOTZA LEHIAKETA

- 1. saria:** Maite Elortza
- 2. saria:** Kattalin Muxika, Sara Manzano, Aintzane Conde eta Maider Esnaola
- 3. saria:** Eneko Gonzalez

GABON POSTA LEHIAKETA

- 1. saria:** Nora Casquero

Pateak, oreinkiak, gaztak, gozoak, xanpaina, ezti... Horiek eta beste hainbat jaki erosteko aukera egon zen San Antonioko feriako bederatziti postuetan.

BESTE HAINBAT EKITALDI ERE IZAN ZIREN

Goizean barrena bestelako ekitaldiak ere izan ziren feriaren bueltan. Auzotarrendako meza egin zuten kaperan, Alai-Taldea abesbatzak hainbat Gabon kantu egin zituen, Angie DJak musika jarri zuen, pintxoak banatu zituzten elkartean eta bazkaria egin zuten.

Horrekin batera, goizeko beste protagonistak IV. Serafin Esnaola jaiotza lehiaketa eta I. Gabon postal lehiaketa izan ziren. Lehenengoan hiru jaiotza aurkeztu zituzten; bigarrenean, berriz, bat. Edozelan ere, parte-hartzaile guztiek eraman zuten saria etxera: oroigarria eta diploma, hain justu ere.

18/98ko auziperatuei diruz laguntzeko kontu korrontea eta bonoak

Epaiketaren hileko 423.400 euroko gastuei aurre egiteko kanpaina hasi du 18/98+ taldeak

teak beste, Gabonetan egiten diren ekitaldiak ere aprobetxatuko dira kanpainaren berri eman eta bonoak saltzeko. Dena dela, bonoak, 20 eurokoak guztiak, sinbolikoak dira. Garrantzitsua dena da kontu korrontera dirua sartzea".

Asteleheneko Goienkaria

18/98ko auziperatuek izan behar duten galera ekonomikoari aurre egiteko, elkartasun kanpaina ekonomikoari ekin dio 18/98+ plataformak. Helburua da, ahal dela, hilero 423.400 euroko gastuari aurre egiteko dirua batzea.

Horretarako bi bide jarri ditu plataformak: batetik, 20 euroko bonoak saldu; bestetik, Euskadiko Kutxan ireki duten kontu korrontean dirua sartu.

Maite Aristegik, 18/98+ plataformako kideak, azaldu digunez, "bonoak herrietara banatu ditu plataformak, eta, bes-

HILERO 423.400 EURO

18/98+ plataformak egindako kalkuluaren arabera, auziperatutako 59 laguneko epaiketa hilero 423.400 euro kostatzen da. Hortxe batuta daude, besteak beste, desplazamendu eta dietak, abokatu taldearen aurrekontua, bai eta lanera joan ezinagatik kobratzeari lagatako soldadak.

Kontu korrontea

Euskadiko Kutxa
3035-0149-40-1490027825

• ARIZMENDIREN ARRASATEKO UMEZAINZA GUNEA



JOSETXO ARANTZABAL

URTARRILEAN SAN JOSEPERA DOAZ

Arizmendi ikastolak Arrasateko umezaintza gunea inauguratzeko jaiak egin zuten zapatu goizean. Aurreko ikasturtea Urbarrin eman dute, eta urtarrilean bueltatu egingo dira zapatuan inauguratutako San Josepe egoitzara, han egin beharreko egokitzapen lanak dagoeneko bukatu dituztelako. Ate irekien jaiak egin zuten, eta umeek zein gurasoek, egoitza berria ikusteaz gainera, hainbat jolas egiteko aukera ere izan zuten; eta jaiak bukatzeko luntx goxoa izan zuten.

smsoinu
Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

SOINUAK: Bidali, SOINUE+hutsunea+KODEA
ABESTIAK: Bidali, SOINUP+hutsunea+KODEA
LOGOAK: Bidali, SOINUL+hutsunea+KODEA
JOKOAK: Bidali, SOINUJ+hutsunea+KODEA

7505
zenbakira

Deiaren prezioa:
0,90 + BEZA



Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

OHARRAK

1. BATERAGARRITASUNA: Begiratu zure poltsikoko telefonoa bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: www.smsoinu.com/bateragarri Bertan jessko duzu beharrezko duzun informazio guztia.

2. BALDINTZAK: Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPRS sistema aktibatuta izatea. GPRS sistema aktibatuta, jarraitzen zure hontzalearekin harremanetan. Alta ematea doan da eta Kb jaitziera bakarrik ordaindu behar duzu. Kasu guztietan deia eta GPRS sistemaren altea ematea doan dira.
* Euskaltel: deitu 900 84 02 00 telefonora, / Vodafone: deitu 123-ra, / Movistar: deitu 609-ra.

3. ZALANTZAK: Edozein zalantza duzula, jarri gurekin kontaktuan: smsoinu@smsoinu.com / edo deitu: **902 01 21 48** telefonora.

4. PERTSONALIZAZIOAK: Zure neurria egin ditazakegu abesti eta logoa. Webgune honetan kaleratu eta erabilizailerik eskura dezaziteke nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonora.

ABESTIAK POLIFOIKOAK (sms 1) Abestiaren izena (Abeslaria) | KODEA

Himnoak
Eibar | EIBAR
Athletic Club | BILBAO
Osasuna | OSASUNA
Real | REAL

Pop-Rock
Aitormena (Hertzainak) | AITORMENA
Aizkolari (Kortatu) | AIZKO
Amore amore (Kandadeko benta) | AMORE
Begiak okertuta (Lin Ton Tatu) | BEGIAK
Bi Minutuko (Hertzainak) | BIMINU
Dub manifest (Farmin Muguruza) | DUB
Egunero (Hertzainak) | EGUNERO
EH Sukarra (EH Sukarra) | SUKAR
Ez dican mierda, nosotros amén (La Polla) | ELLOS
Enamorado de la muerte (RPM) | ENAMO
Etorikizuna (Etsaiak) | ETORKI
Ezer ez da betiko (Karm) | EZER

Gora Herria (Nego Gorak) | GORA
Hator Bel-Air (Bide Ertzean) | BELAIR
Haizea (Ken7) | HAIZEA
Hegal egiten (Itaiz) | HEGAL
Ikusi (Delium Tremens) | IKUSI
Iargia (Ken7) | IKEN
Inpernuen ate joka (Gatibu) | INPER
Jokin Urain Hitzak (Bide Ertzean) | JOKIN
Kaixo (Urte) | KAIKO
Lau Teilatu (Itaiz) | ITOIZLAU
Laztana (Lazten) | LAZTA
Lotuta egon arren (Kokein) | LOTUTA
Lotuta egon arren (Etxo) | LORE
Marea Gora (Itaiz) | MAREA
Musturrek sartunde (Gatibu) | MUSTURREK
Nicaragua (Kortatu) | NICA
No time for love (Hertzainak) | NOTIME

Salve (La Pota) | SALVE
Sari Sari (Kortatu) | SARRI

Sorginen leizean (Eskua) | SORGIN
Txabxo (Zarama) | TXATXO
TXUS (La Pota) | TXUS

Trikitixa
Bexamela ta pastela (Maia ta biar) | BEXAMELA
Bokespok (Kapa Junkera) | BOKESPOK
Hik lan eta nik jai (Napi) | HIK
Itsas ontzi baten (Kaxiano) | ITSAS
Kupela (Epede eta Larrañaga) | KUPELA
Mila galdere (Aitz/Maider) | MILAI
Nirekin (Gozategi) | GOZATEGI
Ny Hirahira (Kapa Junkera) | HIRA
Txanpon baten truke (Aitz/Maider) | TXANPON

Folk
Aratsalde honetan (Sorotan Bala) | SOROTAN

Bai euskarari (Pantxo) | BAI
Bakezaleak (Anje Duhalde) | BAKE
Bizkaia Maite (Benito Lertxundi) | BIZKAIA

Eperrak (Anje Duhalde) | EPERRAK
Euskal Herriaren Euskaraz (Oskorri) | EUSKAL
Euskaldun berriaren balada (Oskorri) | EUSKALDUN
Ez da posible (Ruper Ondoñak) | POSIBLE
Furra Furra (Oskorri) | FURRA
Galziera noa (Oskorri) | GALZIARA
Gernikako Arbola (Gontzal Mendibil) | GERNIKAI
Haika Mutli (Mikel Laboa) | HAIKA
Izarren hautsa (Kaber Leta) | IZARREN
Leppan hartu ta (Pantxo/Peto) | LEPOAN
Marinelaren zai (Sorotan Bala) | MARINE
Nere herriko neskatza maite (Benito Lertxundi) | NERE
Non geratzen den denbora (Mikel Ondoñak) | NON
O! Ama Euskal Herria (Benito Lertxundi) | O! AMA


Tirakli (Oskorri) | TIRA
Txabxamabainabou (Mikel Ondoñak) | TXATXA
Txoria txori (Mikel Laboa) | TXORIA
Zaindu maite duzun hori (Ruper Ondoñak) | ZAINDU

Herrikoia
Bagare! BAGARE
Desde Santurce a Bilbao | DESDE
Ikusi Mendizaleak | MENDI
Pimbo-pimbo | PINTXO
San Simon eta San Judas | SAN
Jaietakoak
Artillero dale fuego | ARTILLERO
Marijela (Kapa Junkera) | JAJA
San Fermin | FERMIN
San Martzialakoa akordea | SAN MARTZIAL

SOINUAK (2 sms)

Soinu izena | KODEA
1.2.3.4...Real | REAL
Athletic Iuep!! | IEUP
Buztan bertsoa | BERTSO
Hartu... Aitaren ta semea... | AITAREN
Hartu... Ansari | ANSAR
Hartu... Argentinarra | ARGEN
Hartu... Mexikarra | MEXIKO
Hartu... Miami! | MIAMOL
Independentzia! | INDEPEN
Irrintzia | IRRINTZI
Jotake irabazi arte! | JOTAKE
Milazu! (pilota) | MILAZU
Txalaparta | TXALA
Txootx | TXOTX

LOGOAK (sms1)



Albiste izango da

OÑATI | DOAN DA ETA 20 LAGUNENDAKO TOKIA DAGO

Alzheimer gaixoen sendikoendako ikastaroa antolatu dute

Lahar elkarteak *Dementia*, *Alzheimer* izeneko ikastaroa antolatu du (Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutakoa da eta Oñatiko Udalak finantzatutakoa). Ikastaroa zuzenduta dago Gerontologia arloan lan egiten duten pertsonen eta gaixoen senitartekoei. Urtarrilaren 16an, 17an eta 18an izango da ikastaroa, 17:00etatik 20:00etara, Oñatiko kultura etxean, eta doan da.

Informazio gehiagorako edo izena emateko deitu: 943 47 41 82 (Marian Goenaga) edo 665 71 86 95 (Pedro Bilbatua) telefono zenbakietara. Gehienez 20 lagunendako tokia dago.

ARRASATE | 19:00ETAN, OSOKO BILKUREN ARETOAN

Bizikletaren erabilpena sustatzeko jardunaldiak bihar, udaletxean

Lurrats eta Kalapie elkarteek bizikletaren erabilpena sustatzeko jardunaldia antolatu dute, Arrasateko Udalarekin elkarlanean. Kalapie elkarteak Edorta Bergua Euskadiko bizikletaren plan estrategiko baten alde mintzatuko da; Gipuzkoako Foru Aldundiko Bea Martikorenak, berriz, *Gipuzkoa zeharkatu pedalari eraginez* gaia landuko du eta Marcos Seguirolak, Debagoieneko Mankomunitateko ordezkari gisa, bi gai azalduko ditu: bata, *Bizikletaz Landatik Mekolalderaino*; eta bestea, *Tranbiaren proiektuaren eraginak* izenekoak.

Jardunaldia bihar izango da, udaletxeko osoko bilkuren aretoan, 19:00etan.

ESKORIATZA | HILAREN 22AN, 23AN ETA 24AN

Gazte Asanbladak bigarren eskuko gauzen azoka egingo du asteen

Hirugarren urtez bigarren eskuko gauzen azoka antolatu du Gazte Asanbladak. Kultura etxean jarriko dute hilaren 22an eta 23an, 17:00etatik 19:00etara eta 24an, 12:00etatik 14:00etara. Eguraldi ona egingez gero, plazan jarriko dute.

Azokaren helburua da etxean erabili gabe ditugun gauzei erabilpena ematea. Hala, azokan saltzeko zerbait dutenek gaur, astelehena eta bihar, martitzena eraman beharko dituzte gauzok kultura etxera, 17:00etatik 19:00etara. Denetarikoz gauzak eraman daitezke –arropak, liburuak, diskoak, jostailuak...–, baina egoera onean egotea komeni da. Azokan prezio merkean salduko dituzte jendea erostera animatzeko. Adin guztietarako gauzak egongo dira, gainera.

ESKORIATZA | ZOZKETA ERREGE BEZPERAN IZANGO DA

Dendariek zozketarako txartelak banatuko dituzte bezeroen artean

Herriko merkatari eta zerbitzuek Gabonetako kanpaina hasi dute asteen. Hala, bezeroen artean txartelak banatuko dituzte erosketekin batera eta Errege egunaren bezperan zozketa egingo dute. Irabazleak jasoko du 1.500 euroko bonoa herriko dendetan gatzeko eta baita afari bat ere.

Oraingoz dendari elkarterik eratuta ez dagoen arren, Eskoriatzako merkatariak elkarrekin balira funtzionatzen dute. Urtean hainbat aldiz batzen dira eta ekimen ugari antolatzen dituzte bezeroei begira.

ELGETA | BALDINTZAK UDALETXEAN DAUDE IKUSGAI

Babestutako etxeetan izena emateko epea hilaren 31ra arte

Udalak asteen onartu ditu Torrealdeko Babes Ofizialeko Etxebizitzak gainera baldintza pleguak, hainbat aldaketa egin eta gero. Baldintza horien berri jakiteko udaletxera jo behar dute interesatuek edo www.elgeta.org webgunera.

Babes Ofizialeko Etxebizitzotan izena emateko epea urtarrilaren 31ra arte dago zabalik eta Udaleko iturriek esandakoaren arabera, maiatzean edo ekainean egingo dute zozketa. Etxebizitzak erakitzeke lanei dagokienez, Gabon ostean hasiko direla ere aurreratu dute Udaletik, eta lanak hasi eta gero 18 hilabeteko epea dagoela bukatzeko.

Hitzorduak

SANTAMASETAKO AZOKA EGINGO DUTE EGUENEAN, HILAK 22 |

Herriko plaza eta kale nagusietan makina bat postu ipiniko dituzte

Santamasak ospatzeko gertu daude arrasatearrak. Urtero bezala, azoka egingo dute, eta egunean, hilak 22, izango da. 10:00ak inguruan irekiko dituzte postuak Seber Altuben (fruta eta barazkiak), herriko plazan (eztia), Garibai etorbidean (ganadua) eta Jokin Zaitegi plazan (artisauek).

Horrez gain, gazta lehiaketa eta pintxo lehiaketa ere egingo dituzte eta, egun osoan, kale-animazioa, herri kirolak eta jatekoak izango dira.

Arratsaldean, berriz herri kirolak, Tapia eta Leturiaren emanaldia, bertso emanaldia eta pilota partiduak izango dira.

ARETXABALETA |

• **Yoga eta garapen pertsonal ikastaroak antolatu dituzte**
Aredhana yoga eta psikoterapia zentroak honako ikastaroak antolatu ditu: yoga, martitzen eta egunetan, 10:00etan, 17:00etan eta 20:00etan; eta garapen pertsonalekoa hilean behin, zapatu goizez. Argibide gehiagorako, deitu 616 96 57 95 telefono zenbakira.

ARRASATE |

• **Gabon kantak abestuko dituzte Santa Teresakoek**
Arizmendiko Santa Teresako ikasle, irakasle eta gurasoek Gabon kanta kalejira egingo dute, 11:00etan hasita, honako lekuetatik: ikastolako jolasotokia, Sailuente plaza eta Legarre plaza.

• **Emakumeen aurkako indarkeria salatuko dute**

Baionan gertatutakoa salatzeke, elkarretaratzea egingo du emakumeen aurkako indarkeriaren aurkako plataforma mistoak. Gaur, astelehena, izango da, herriko plazan, 19:00etan.

• **Errege kabalgararako jendea behar dute antolatzaileek**
Erregeek kabalgata egingo dute urtarrilaren 5ean, eta haiekin joateko jendea behar dute. Interesa duenak urtarrilaren 3an San Viator Handira joan behar du 19:00etan. Beste

alde batetik, umeen abesbatzak urtarrilaren 2tik 4ra bitartean egingo ditu entseguak, parrokiaren, 18:00etan.

ELGETA |

• **Internetez aseguruak kontratatzeke ikastaroa**
Eguaztenean, hilaren 21ean, Internetez aseguruak nola kontratatu daitezkeen azalduko dute KZgunean 18:00etatik 19:00etara.

BERGARA |

• **Arau subsidiarioen aurrerapena ikusgai**

Udaletxeko osoko bilkuren aretoan dago: aste barruan 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara dago zabalik erakusketa. Zapatuetan, berriz, goizez bakarrik.

• **Odol-ateratzea egingo dute etzi, eguaztena**

Bergarako Odol Emailen elkarteak deituta, abenduaren 21ean izango da urteko azken odol ateratzea, Seminarioan izango da, ohiko ordutegian.

ESKORIATZA |

• **Erretiratuendako txistorra jana antolatu dute**
Eguaztenean, hilaren 21ean, erretiratuendako txistorra jana antolatu dute Olarza erretiratu elkartekokideek. Olarza elkartearen izango da, 17:30ean.

DEBAGOIENA |

• **Sahararekin hainbat elkartasun ekintza**

Sahararen aldeko hainbat ekintza daude Debagoienean. Alde batetik, Sahararen aldeko egutegiak saltzen ditu Nubi elkarteak, 10 eurotan. Interesatuek honako telefono hauek deituz: 685 72 48 16, 685 72 48 17 edo 685 72 48 18. Beste aldetik, hara bidaltzeko azukrea, atuna eta konpresak batzen ari dira supermerkatuetan eta ikastetxeetan. Leintz Gatzagan, jostailuak batzen dihardute.

OÑATI |

• **San Miguel Errota doan bisitatzeke aukera dago**

Eraberritutako San Miguel Errota doan bisitatzeke aukera dago egunotan. Turismo Bulegoak martxan jarriko du errota 12:00etan eta 17:00etan, eta azalpenak ere emango dizkie bisitariei.

• **Jaiotza biziduna egingo du Elkar Hezi ikastetxeak**

Jaiotza biziduna egingo du Elkar Hezi ikastetxeak eguaztenean, hilaren 21ean. Etxaluzetik hasiko dira 18:00etan eta, kalerik kale ibili ondoren, herriko plazan bukatuko dute emanaldia. Plazan, janari salmenta egingo dute Gobernu kanpoko Erakunde baten alde.



BERANGO

LOGOS
ALTZARI INTEGRALAK

DEKORAZIOA, SUKALDEAK

Tel.: 943 79 01 92
Gipuzkoa etorbidea 1
20500 Arrasate

Muebles

Kabía

Altzariak

4 URTE
interes barik

Gipuzkoa etorbidea 23
20500 Arrasate
Tel./Faxa: 943 79 27 70



Iritziak



Isilpekoak

943 25 05 01
goienkaria@goiena.com

Zerbait esateko daukazula? Deitu edo idatzi e-posta. Zeri txaloak, zeri txistuak... Eta sail honetan aterako ditugu zure komentarioak.

• Udalako biribilguneko zuloa

Arrasatetik bidali digute hurrengo txistua. Udala plazako biribilgunean dagoen estolda-zuloagatik kezu: "Udala plazako biribilgunean dagoen estolda-zuloaren sakontasunaz kezu egin nahiko nuke. Han dagoena, azpitik doana, seguru asko oso baliotsua izango da eta zerbaitegatik egongo da estolderia-zuloa hor bertan. Baina oso sakona da zuloa eta autoa, jada, herren geratzen hasi zait, aurrealdeko eskumako gupil aldetik. Behar-beharrezkoa ote da estolderia sarrera horren sakontasuna?"

• Aldi baterako autobus geralekua

"Arrasateko Hotel Mondragonen kontra jarri dituzte autobus geralekuak, Garibai kaleko lanak direla eta. Aldi baterako geralekua den arren, ondo legoke markesina bat jartzea hortxe, kontuan izanik urteko sasoi honetan botatzen dituen euri zaparradak".

• Bergarako arau subsidiarioen erakusketa eskasa

Bergarako irakurle batek erabat suminduta idatzi digu Bergarako udaletxeko osoko bilkura aretotik pasatu ostean, herriko arau subsidiarioen erakusketa bisitatetik. "Ni neu ez naiz batere aditua planoak eta antzekoak interpretatzen; hortaz, herritarrek ikusteko zela jakin nuenean, hara joan nintzen, pentsaturik azalpenez josita izango zirela herriko planoak. Nire harridurarako ez nuen inolako azalpenik topatu han, eta nire herriak hartuko duen itxura zein den jakin barik atera nintzen. Hura ikusita, politikoez herritarrengana hurbiltzeko baino urruntzeko egin duten susmoa daukat. Ez ote litzateke guztiondako hobe izango planoen ondoan gutxieneko azalpen bat jartzea?"

Sarean harrapatuta

Jokatzen duzu Gabonetako loterian?

Askok erosten dute urtero Espainiako Gabonetako loteriarako txartel bat edo beste. Aurten, 40 milioi euro gastatu ditugu gipuzkoarrok Gabonetako loterian. Santamas egunean, hilaren 22an, egin ohi

dute zozketa eta sari txiki asko banatzen dituzte. Jokatzen duzu zuk? Ohiturarik baduzu Gabonetako loteria erosteko? Horixe galdetu dute aste honetan *Goiena.net*-eko eztabaida gunean.

LANKIDEEK EROSI DUTELAKO HARTU DUT

Enpresan Gabonetako loterian jokatzea erabaki dute eta lankide guztiek jarri dute dirua. Nik ere, halabeharrez, erosi egin behar. Zer egin, bestela, lankide guztiak aberats egiten badira? Besterik ez dut erosi, ohiturarik ez dut, baina badirudi erosten ez baduzu zure bizitzako aukera galtzen ari zarela.

Lurdes / www.goiena.net

INGURUKOEK EROSTEN BADUTE NIK ERE BAI

Nik oso zaila ikusten dut loteria tokatzearena. Dena dela, nire ingurukoek erosten badute, lagunek, lankideek... nik ere erosi egiten dut badaezpada ere. Ez dut uste tokatuko zaidanik, baina tokatuz gero ez dut nahi aho zabalik geratzerik.

Miren / www.goiena.net

BEHAR EZ DUENARI EGOKITZEN ZAI O BETI

Gabonetan uste dugu zerbait berezia dagoela. Burusoilaren iragarkiarekin engainatzen gaituzte loteria erosteko eta denok uste dugu tokatuko zaigula, izar magikoak lagunduta. Negozio ederra egiten dute batzuek, eta herritar xumeok dirua gastatzen. Eta etxe azpiko taberman tokatzen bada? Eta egunero ogia erosten

dudan okindegian? Edo lantokioe? Badaezpada denak erosten ditugu eta gero behar gutxi dute egokitzen zaie!

Lolo / www.goiena.net


ESTATUARI MESEDE EGITEN DIOGU

Ez dut sinisten eta ez dut erosi ere egiten loteriarik. Gainera, Estatu espainiarrari mesede egiten diogu eta dena da interesa. Hala ere, gustura hartuko nuke Sorteko dezimotxo bat.

Jul / www.goiena.net

www.goiena.net

Ohiturarik baduzu
Gabonetako loteria
erosteko?



Zure iritzia eman nahi baduzu jo www.goiena.net webgunera

DENOK EGITEN DUGU AMETS LOTERIAREKIN

Dezimorik ez dut erosten, baina bestelako txartelak bai ugari; ikastolako umeak, kirol taldeak, lantegian... Denok egiten dugu amets.

Aitor Menta / www.goiena.net

BEHARTSUENEN ILUSIOA DA LOTERIA

Loterian baino lehenagoko gauzak baditugu egiteko. Zergatik ez da loterian gastatutako diru guztia Gobernu Kanpoko Erakunderen batera eramaten?

Loteria behartsuenen ilusio bat besterik ez da, asko dutenei tokatzen baitzaie beti. Badakizue, diruak diruari deitzen diola diote.

Diru / www.goiena.net

TXARTELAK EROSTEA DA ONENA

Nik urtero jokatzen dut loteria neta noizbait egokitu zait zerbait. Noski, ez kristoren milioiak, baina gastatutakoaren aldean asko. Onena da txartel gutxi batzuek erostea; dezimoak erosten hasten bazara dirurik gabe bukatzen duzu. Hala eta guztiz ere, batzuek gehiegi gastatzen dutela iruditzen zait, dezimo bat ikusten duten leku bakoitzean erosten dute-eta.

Rober / www.goiena.net

Halaxe erantzun digute

Olentzero-zaleak gara ala opariei erreparatzen diegu gehienbat, eta berdin-berdin digu



TINA GABIKA-ALDEKOA |
ARAMAIOKO IKASTETXEA

Gure ikasleei Olentzeroz berba egiten diegu. Aurten jostailu barik ere ondo pasa daitekeela eguna ospatu dugu, eta Olentzerori gutuna idatzi diogu gero, opari bakarra eskatzen. Ingeles eskolan, ordea, azaldu diegu beste herrialde batzuetan beste izen bat izaten duela pertsonaia horrek.



ZURIÑE MENDIA |
TXANDA DENDARI ELKARTEA

Olentzeroz jende gehiago oроitzen da. Olentzero, nire ustez, gurasoen eta seme-alaben arteko oparitarako izaten da gehiago eta beste senideen kasuan Erregeekin akordatzen dira. Jendeak, oparitara datorrenean, bereiztu egiten ditu biak, eta opari asko direnez, merkeagoak izaten dira.



EGUZKIÑE ALBERDI |
LUIS EZEIZA GURASO ELKARTEA

Olentzero Eguna ez dira bakarrik opariak. Olentzerori koplak abes- teko eguna da eta hori euskaldunok oso barruan daukagu. Opariak hurrengo eguneko kontuak dira eta umeek badakite ezin zaiola telebistan ikusten duten guztia eskatu; hori ez da Olentzeroren espiritua.



MAIDER OSA |
BERGARAKO KULTURA TEKNIKARIA

Opari zaleak gara. Olentzero dugu irudi propiotzat, baina errege magoek ere tradizioa dute eta Santa Klaus eta Papa Noel hedabideetan. Guztiei eskatzea libre dute umeek. Gurasoen lana eta hezkuntza zentroena izango da neurririk gabeko kontsumoari mugak jartzeko gogoeta bultzatzea.

Egunkarietako harribitxiak

GORROTAGARRI, KALTEGARRI ETA GALERA ITURRI

Zarata lan munduan gaixotasunak eta istripuak eragiten ditu eta lehiakortasunari ere kalte egiten dio; baina arazoari ez zaio behar duen garrantzia ematen. Langileek lanean jasan dezaketan gehieneko zarata 90etik 87 dezibelera jaitsiko du EBk.

'Berria'
2005-12-18




TSUNAMI URTE BAT GEROAGO


Iaz, abenduaren 26an, historia garaikideko hondamendi naturalik handiena eragin zuen itsasikara ikaragarri batek. 9 gradukoaren Richterren eskalan, Tsunami izugarri bat heldu zen Sumatra iparraldeko kostara, ordu erdi eskasean. Orain, ia urtebete beranduago, etxerik gabe daude milaka eta milaka lagun eta, paisaiari buruz, atsekabegarria da. 100.00tik gora etxe suntsitu zituen eta

221.000 lagun hil ziren olatu ikaragarriaren ondorioz. Gaur egun han diharduten 500 GKEek etxebizitza eta bizimodua noiz emango dieten zain daude 500.000 lagun. Etxebizitzak eraikitzea ez da zaila, baina bai lana aurkitzea; are gehiago alargun geratu diren emakumeendako. Hamabi hilabete joan dira, baina suntsiketaren ondorioek nabarmen diraute.

'Zazpika'
2005-12-18



Tira, tira...



Tasio 'Gara' | 2005-XII-18

Egunkarietan irakurri dugu

'Noticias de Gipuzkoa'

ELKARRIZKETA

Orain dela 20 urte, euskararen inguruan zegoen adostasun politikoa gaur egun baino handiagoa zen. Egin beharreko lana ikaragarria da eta adostasun politikoa, soziala eta kulturala areagotzeko premia dago. Nola? Onartu behar dugu helburua hauxe dela, egiazko elebitasun orekatura iristea, hain zuzen.

Patxi Baztarrika
2005-12-18

'El Diario Vasco'

ELKARRIZKETA

Espainiako legegintza inspiratuta dago due-la urtebete Irlandan indarrean sartu zen arauan. Han gauzak nahiko ondo joan dira eta urtebetara araua ezarri da arazo handirik gabe lantoki ia gehienetan. Kulturalki onartuta dago gaur egun ez erretzaileen eskubideak erretzaileen eskubideen gainetik daudela.

Salvador del Rey
2005-12-18

'El Mundo'

ELKARRIZKETA

"Aurrez konpartitzen ez genuen EAJren tesirik ez dugu onartu. Oposizio alderdi nagusia gara eta Ibarretzek irudikatzen duenaren alternatiba nagusia. Ituna egin dugu herriak duen arazoari irtenbidea emateko eta ez eserlekuak bete eta Gobernuan lasai egoteko. Itun hau apustua da Euskadin garai politiko berria zabaltzeko."

Rodolfo Ares
2005-12-18

'Berria'

ELKARRIZKETA

Bai poesian, bai nobeletan, bai liburuetako ideietan, bizitzeko nire moduan ere, ez dut ikusten kide handirik Euskal Herrian. Eta, alde batetik, larritzen zara; baina, bestetik, oso libre sentitzen zara. Bi sentimendu horien nahasketa edo. Azken batean, zure iragana da. Eta hor uztea erabaki dut, apalategian edo. Eta desertuan sentitzen naiz.

Bernardo Atxaqa
2005-12-18

Zorroztailea



Mundu bakarra

"Espainiako opor aldi gutiziatua (uztail eta abuztu bitartekoa) batera dator Senegalgo ewri aldiarekin; hilabete horietan ekaitzak eta zaparradak dira nagusi, umeltasuna handia da eta pista lokaztuak ibiliez inbihurtzen dira berehala (...). Azarotik aurrera eta maiatza bitartean, ez da ia euririk izaten, tenperaturak goxoak dira, eta pistak ondo trinkotuak".

A. Ingelmo eta J. Sanz
Senegal-Guia azul | 2005

Gerardo Markuleta

Mundua hankaz gora, batekoz beste, ifrentzuz jarririk, alde-rantziz ipinia. Horra zer sentitzen duen batek, sei orduko bidaiatxo baten graziaz, bere gorputzak hogeita hamar graduko jauzia egiten duenean.

Bilboko aireportuan goibel, euritsu eta hotz lagatako giroa bero udatiar eta zeru-uridin bihurtzen da Dakarrekoan lurra hartu orduko. Gorputzak berehala eskertzen du aldaketa, soberako arropak salatzen ditu eta eguzki-berok emendatutako energia somatzen, urtaroen gurgilari norbaitek bortxazko jira bat-bateko bat eman balio bezala.

Gauza gutxi izango da kilikagarrigorik: urruti bateko hondartzan, bero kiskalgarrian zaudela, telefono mugikorraren bestaldetik zure herrian-astebeterako ihes egin diozun ospelerrian-hotz,

huri eta elur direla garaiko bisitari.

Eta aurrena gogoratzen zara film zahar hartan aberaskilo batek zioenaz: "Beti da uda munduko lekuren batean", esanez bezala: diru nahikoa izanez gero posible da udarari jarraiturik munduari bira ematen jardutea; Xabier Montoiak esango lukeen bezala: "Beti oporretan".

Gero Ángel González poeta asturiarraren poema batekin akordatzeko zara: "Ipar itsasoan negua delarik, uda da Valparaíso... Hori garai berean gertatzen da, baina sekula ez egun berean. Zeren, Ipar itsasoan eguna delarik, gaua baita Valparaíso... Nola dudari elkar elkar maite genuela... elkar maite genuen, bai, eta nik badakit zenbat: udaberriak, udak, eguzkiak, ilargiak. Baina sekulan ez egun berean".

"Bilboko aireportuan goibel, euritsu eta hotz lagatako giroa bero udatiar eta zeru-uridin bihurtzen da Dakarrekoan lurra hartu orduko"

"Eta aurrena gogoratzen zara film zahar hartan aberaskilo batek zioena: 'Beti da uda munduko lekuren batean'"

KIROLA

- Ford Mugarri taldeak garaipen garrantzitsua lortu du Ormaiztegin, 23-31 | 14
- Markel Mendieta arrasatearrak irabazi du Santamasetako V. Boulder txapelketa | 17

Aritz Kortabarriak eta Trikimasa koadrilak irabazi dute Santamasetako krosa aurten | 19

PREFERENTE MAILAKO TALDEAK

UDA

3-1

HERNANI

UDA | Eriz, Raul, Oxel (Torres, 81. min.), Unamuno, Armendariz, Arenaza, Orueta (Juan, 77. min.), Erik, Arriaga (Alonso, 79. min.), Imanol (Iñaki, 60. min.) eta Espinosa (Iregi, 85. min.).

Hernani | Julen, Asier (Vila, 68. min.), Mingo (Gorka, 89. min.), Goya, Sorondo, Gomez, Munarriz, Bakero, Arin (Urbano, 75. min.), Olasagasti (Mikel Garcia, 85. min.) eta Zabala.

Golak | 1-0 Imanol (31. min.), 2-0 Arriaga (38. min.), 3-0 Arriaga (42. min.), 3-1 Vila (79. min.).

Epailea | Ekaitz Zubiaurre. Bigarren zatian UDaren kontrako faltak etengabe adierazi zituen. Etxeko bi jokalarik kalera bota zituen bukaerarako hamar minutu falta zirela.

Bestelakoak | Ikusle gutxi batu zen Aretxabaletako futbol zelaian. Amaieran irainka agurtu zuten epailea.

Bikain

UDAko aurrelariak

Aurrelari onak ditu UDAk eta nabaritu egiten da. Erdilarien lan fina gutxietsi gabe, Imanol Rodriguez eta Igor Arriaga aurrelariak partidu ona egin zuten atzo.

Kaskar

UDaren lehen minutuak

Zeharo galduta ibili ziren Felix Recioaren mutilak lehenengo gola egin zuten arte. Baloia kontrola Hernaniko jokalariena izan zen. Eskerrak erritmoa laster hartu zuten.

Esandakoak

“Partidu gogorra izan da. Kosta egin zaigu erritmoa hartzea, baina lehenengo gola egin ostean asko hobetu dugu jokoa”.

IGOR ARENATZA | UDA-KO JOKALARIA

“Haserre nago jokalariekin. Urteko partidurik txarrena izan da. Bi jokalarik galdu ditugu hiru goleko aldearekin. Horrela ezin da!”.

FELIX RECIO | UDA-KO ENTRENATZAILEA



JOSETXO ARANTZABAL

Hernaniren aurkako partiduan Igor Arriagak egin zituen Aretxabaletakoen hiru goletatik bi.

FUTBOLA | LEHEN ZATIAN EGIN ZITUZTEN ARETXABALETAKOEN HIRU GOLAK

Hernaniarrek akats handiak egin zituzten defentsan

Gaizki hasi arren hiru golak laster egin zituzten UDAkoek; eta gaitz erdi, bederatzi jokalarirekin amaitu zuten-eta norgehiagoka

Larraitx Zeberio

Aretxabaletako taldeak irabazi egin zion atzo, domeka, Hernaniri. Eta emaitza onarekin, gainera (3-1). Entrenatzailea, baina, ez dago pozik. Jokalariekin haserre dagoela jakinarazi zigun partidu amaieran: “Nola da posible 3-1eko markagailuarekin bi jokalarik kanporatuak izatea? Aspaldi honetan taldeak kontzentrazio falta handiegia erakutsi du. Zergatik egin dituzte hain sarrera gogorrak marka-

gailuan aurretik joanda? Bat area barruan izan da eta penaltia adierazi digute. Beste jokalarik bat eskumuturrekoa dela eta ez dela kanporatu digute. Jokalarik faltan gaude eta tontakeriak eginda galzten ditugu. Ezin dugu horrela jarraitu!”.

Felix Recio haserre zegoen hernaniarren aurkako partidu amaieran eta horrela adierazi zien jokalariei, baina aitortu beharra dago partiduaren emaitza ederra izan zela. UDaren lehenengo minutuak ahazteko

modukoak izan baziren ere, aurreneko gola sartu ondoren asko hobetu zuen jokoa etxeko taldeak. Area inguruko falta baten ondotik iritsi zen lehen gola, Imanol Rodriguezek egina.

Lasaitu egin ziren etxeko jokalariek bigarren zatian, eta gola egin zieten

Amaieran giroa asko gaiztotu zen Ibarren, epaileak kanpokoan alde lan handia egin zuelako

Beste bi golak ondorengo hamai-ka minutuetan egin zituen Igor Arriagak. Lehena Igor Arenatzen pase bikain bati esker eta bigarrena Hernaniko defentsaren akats handi bati esker.

“Hernanik oso atzean jokatu du”, adierazi zigun Igor Arenatzen. “Horrelakoetan zaila izaten da golak egitea, baina neurria hartu diogu aurkariari eta lasai egoteko moduko aldea zabaldu dugu atsedendialdiaren aurretik”.

BIGAREN ZATIAN, MOTEL

Gehiegi lasaitu ziren Aretxabaletakoak bigarren zatian. Hernanikoek gogor presionatu zuten eta azkenean penalti bidez lortu zuten euren gol bakarria. Epailea, gainera, alde izan zuten azken 45 minutuetan. Izan ere, asko gaiztotu zen giroa Ibarren.

PREFERENTE MAILA



JOSETXO ARANTZABAL

Aloña Mendiko jokalariek jantziak estreinatu zituzten domekan.

Aloña Mendik merezita irabazi zion Beti Gazteri

ALOÑA MENDI
3-0
BETI GAZTE

Aloña Mendi | Elgarresta, Sanchez (Martin, 74. min.), Losada, Elgarresta, Igartua, Garai (Henry, 64. min.), Olalde, Camino (Aramendi, 72. min.), Arregi II (Astigarraga, 64. min.), Arregi I eta Zubia (Astola, 72. min.).

Beti Gazte | Telletxea, Arenas (Aritzia, 38. min.), Larruy (Almandoz, 45. min.), Zudaire, Telletxea, Iriarte, Santesteban (Juamena, 45. min.), Pikabea, Saralegi (Bertiz, 67. min.), Irigoien eta Apeztegia (Maia, 55min.).

Golak: 1-0 Camino (20. min.), 2-0 Arregi I (penaltiz, 50. min.) eta 3-0 Arregi II (62. min.)

Epailea: Mitxelena jauna.

Arantzazu Ezkibel

Aloñak nagusitasun osoz irabazi zion Azkoagainen Beti Gazteri (3-0). Oñatiarrak ondo kokatuta zelairatu ziren. Zelai erdian baloiaren jabe izan ziren une oro Oruetaren mutilak.

Hasierako minutuetatik arriskua sortuz ibili ziren aurkariaren atean. Horrela, 20. minutuan, Xabi Caminok lehenengo gola egin zuen. Gol horrek kemen handia eman zien oñatiarrei. Bigarren golaren bila gogotsu aritu ziren Aloñako mutilak, baina bigarren zatira arte ez zen gol gehiago ikusi Azkoagainen.

Atsedenerako ostean, bi taldeak indartsu atera ziren. Hala, 5. minutuan epaileak etxekoen aldeko penaltia adierazi zuen.

Unai Arregik hartu zuen baloia jaurtitzeko ardura eta ez zuen hutsik egin. Gol harekin, lehia Aloñaren alde erabakita zegoen.

BEHARREZKO GARAIPENA

Jokaldi haren ondoren, epaileak Beti Gazteko Jon Telletxeari txartel gorria erakutsi zion. Aloñak jokalaria bat gehiagorekin ez zuen inolako arazorik izan aurkariaren atera iristeko. 62. minutuan, Iñigo Arregik partidua hirugarren eta azken gola egin zuen.

Garaipen horrekin Aloñak 32 puntu lortu ditu aurtengo denboraldian. Oruetaren mutilak sailkapeneko 3. postuan daude. Datorren astean Idiazabalen izango dute norgehiagoka eta irabaziz gero, urtea ederto bukatzeko aukera izango dute.

Lehenengo zatian gol bi egin zituen Mondrak

MONDRA
3-1
ANAITASUNA

A.G.

Lehenengo minutuak izan ziren gaitzenak Mondrarendako. Anaitasunak sei jokalaria jarri zituen zelai erdian, eta gogorra izan zen jokoa bizkortzea. Zailtasunak zailtasun, baina, Mon-

dra nagusitu egin zen, eta Lopezen eta Zubikarainen golak iritsi ziren. Gero, partidu amaieran egin zituzten beste bi golak, Mondrarena Lazpiurrek eta Anaitasunarena Rotxak.

LAGUNTASUN ADIERAZPENA

Aitor Alartzia jokalaria taldekideen animuak jaso zituen zapatuan. Oraingo astean konfirmatuko dute, baina ia seguru lokailu gurutzatuen haustura du belaunean. Taldekideak Animo Aitor zioen kamisetarekin atera ziren partidu aurretik.

Emaitzak eta sailkapenak / Preferente maila

EMAITZAK		SAILKAPENA							
		Puntuak	J	I	G	B	GA	GK	
Berio-Irun 1902	4-3								
Mondra-Anaitasuna	3-1	1.Real Union	41	17	13	2	2	38	16
Allerru-Hondarribia	1-3	2.Ordizia	35	17	11	4	2	30	14
Zestoa-Trintxerpe	1-3	3.Aloña Mendi	32	17	10	5	2	33	22
UDA-Hernani	3-1	4.Trintxerpe	31	17	9	4	4	29	22
Touring-Zarautz	2-1	5.Mondra	30	17	9	5	3	32	20
Pasaia-Ordizia	1-2	6.Pasaia	30	17	7	1	9	29	19
Orioko-Mutriku	0-0	7.Mutriku	29	17	9	6	2	26	23
Aloña Mendi-Beti Gazte	3-0	8.UDA	29	17	8	4	5	33	18
Idiazabal-Real Union	1-1	9.Zarautz	25	17	7	6	4	32	21
		10.Zestoa	23	17	6	6	5	24	23
		11.Berio	22	17	5	5	7	25	24
		12.Touring	21	17	6	8	3	25	28
		13.Idiazabal	20	17	4	5	8	20	26
		14.Anaitasuna	19	17	5	8	4	17	22
		15.Hernani	19	17	5	8	4	19	27
		16.Orioko	15	17	3	8	6	18	34
		17.Hondarribia	14	17	3	9	5	17	32
		18.Beti Gazte	13	17	3	10	4	18	31
		19.Irun 1902	11	17	2	10	5	17	35
		20.Allerru	8	17	2	13	2	10	35

HURRENGOAK

Real Union-Irun 1902
Anaitasuna-Berio
Hondarribia-Mondra
Trintxerpe-Allerru
Hernani-Zestoa
Zarautz-UDA
Ordizia-Touring
Mutriku-Pasaia
Beti Gazte-Orioko
Idiazabal-Aloña Mendi

1. Erregionala

Bergarak aurkari zuzena den Ilintxa menderatu zuen

BERGARA
2-1
ILINTXA

Arantzazu Ezkibel

Ia partidu guztia jokalaria bat gutxiagorekin egon arren, Bergarak urrezko hiru puntu eskuratzen zituen zapatuan.

Partidua etxekoen alde hasi zen; 15. minutuan, Canasek lehen

gola egin zuen (1-0). Baina pozak ez zuen luze iraun Bergarako zaleen artean; izan ere, 30. minutuan, epaileak Ilintxaren aldeko penaltia adierazi eta Txomin kaleratu egin zuen. Hala, legazpiarrek ez zuten aukera alferrik galdu eta berdinketaren gola egin zuten.

Eta atsedenerako gutxi falta zela, epaileak Bergarren aurkako bigarren penaltia adierazi zuen. Atezaina, baina, bikain ibili zen eta jaurtiketa geratu egin zuen. Hala ere, epaileak jaurtiketa errepikatzea eskatu zuen, eta bigarren ere, Julio atezainak baloia geratzea lortu zuen.

EPAILEAREN LANA, TXARRA

Bigarren zatian, berriz, Dovao zelairatu berriak indarberritu egin zuen partidua.

Jokalaria bat gutxiago izan arren, Bergarak gogor jokatu zuen. Epailea ez zen ondo ibili eta bai etxekoen eta bai kanpokoen kexak entzun zituen. Bergarako zaleak oso haserre zeuden epailearen lanarekin. Baina azkenean, Bergararen 2. gola etorri zen: Dovaok area kanpotik jaurti eta baloia sare barrura sartu zuen. Hala ere, kamiseta eransteagatik bigarren txartel horia erakutsi zion epaileak, eta kalera joan zen.



JOSETXO ARANTZABAL

Bergarak bederatzi jokalarirekin bukatu zuen partidua.

• LEHENENGO TERRITORIALA

Bergararrek samurtasun handiak eman zituzten

Elgoibarkoak sailkapeneko azkenaurrekoak izan arren, Bergarari irabazi zioten



JOSETXO ARANTZABAL

Begararrek erraztasun asko eman zizkieten Elgoibarko jokalariei.

BERGARA

19-24

ELGOIBAR

Bergara | Plazaola (5), Larrañaga, Zangitu, Uribe (1), Agirre (2), Sanchez (1), Mujika (3), Pozo (1), Xabier Najera (2), Iñaki Najera, Errasti, Zabaleta (1) Lenisoro (1), Ugalde (2)

Elgoibar | Agirregomezkorta, Ajuriagerra (9), Altuna, Martinez (1), Buenavida, Ioritz Conde, Oier Conde (5), Cordon (1), Esnaola (1), Garaizabal (1), Iglesias (3), Menbrillera, Oteiza (1), Zubiaurre (2).

Golak: 3-3, 5-6, 6-8, 6-11, 9-11, 12-16, 14-17, 15-19, 16-20, 16-21, 18-23.

Arantzazu Ezkibel

Begararak 19-24 galdu zuen etxean Elgoibarko taldearen aurka. Irabazteko moduko partidua zen domekakoa, Elgoibar sailkapeneko azken postuetan dago-eta. Edozelan ere, Labe-garrietan jokaturako partiduan, elgoibartarrak indartsuago aritu ziren eta, hala,

merezimendu osoz irabazi zuten norgehiagoka.

PARTIDU GUZTIA ATZETIK

Bergara hasieratik jarri zen markagailuan atzetik. 10. minutuan 5-6 ziren atzetik etxekoak. Eta alde hori handitzen joan zen minutuak pasa ahala. Horrela, atsedendian 12-16 galtzen zihonan talde mahoneroa. Lehenen-

go zatian bergararrek nahiko joko ona egin zuten; erasoan akats batzuk izan zituzten, baina orokorrean partiduaren erritmoari eutsi zioten.

Bigarren zatian, baina, erritmo hori apurtu egin zen eta bergararrak behera etorri ziren. Defentsan nahiko txukun ibili ziren arren, kontraerasora ateratzeko orduan urduri ibili ziren

eta baloi asko galdu zituzten. Atezainaren aurrean jaurtiketa garbiak huts egin zituzten. Hala, etxekoek 4-5 goleko aldea izan zuten kontra denbora guztian.

Azkenean, beraz, puntuak ihes egin zuten Bergara aldetik. Domekakoa aurtengo azken partidua izan zen. Hain zuzen ere, bergararrak 7. postuan daude, zazpi punturekin.

• BIGARREN TERRITORIALA

Bigarren zatian egin zuten aldea

ARRASATE

28-20

UROLA

A.G.

Lehenengo hamar minutuak izan ziren gaitzenak Arrasateko taldearendako, baina laster eman zioten markagailuari buelta etxekoek. Urolako jokalariek gogor hasi ziren, eta horregatik lortu zuten hiru puntuko aldea zabal-

teza. "Uste baino gogorrago hasi ziren Urolakoak. Lanak izan genituen, baina zentratzea lortu genuen eta gauzek hobera egin zuten", adierazi digu Arrasateko entrenatzaile Beñardok.

BERDINKETAREN OSTEAN GAINETIK BETI

Berdinketa lortzea garrantzitsua izan zen etxeko taldearendako. Hori lortutakoan gauzek hobera egin zuten nabarmen eta aurretik jarri ziren, neurketaren amaierara arte.

Atsedenerako lau puntuko aldea zuten etxekoek eta bigarren zatian tarte hori zabaltzea lortu



JOSETXO ARANTZABAL

Etxekoek lehia berdindu zutenean, behera egin zuten Urolakoek.

zuten pixkanaka-pixkanaka. "Taldea ondo ari da, baina gorabehera handiak izan ditugu", adierazi digu entrenatzaileak.

"Ondo hasi genuen txapelketa, baina ez gara oso erregularrak izan eta puntu garrantzitsuak galdu ditugu bidean".

• NESKEN EUSKAL LIGA

Aloñak galdu egin zuen, txarto jokatuta (17-7)

A.G.

Aloñak 17-7 galdu zuen Munda-kako Urdaibairen aurka. Joan den aspaldiko partidua txarrena jokatu zuten, hasieratik erraztasunak emanda aurkariei. Atsedendian 8-4 zihozten galtzen.

• LEHENENGO TERRITORIALA

Ford Mugarrik garaipena lortu dut Ormaiztegin

A.G.

Andoni Arandoren mutilek 23-31 irabazi zioten Ormaiztegin taldeari zapatuan. Ondo jokatu zuten eta atsedendialdirako zortzi puntuko aldea zuten. Orain, bigarren daude sailkapenean.

• LEHENENGO TERRITORIALA

Arrikruztekin berdindu egin zuen (28-28)

A.G.

Aloña Mendi aurretik ibili zen ia partidua guztian, baina azkenean Hondarribiak norgehiagoka berdintzea lortu zuen (28-28). Iñigo Aranburu entrenatzailearen ustez, ondo jokatu zuen Aloñak.

Emaitzak

MAILAZ MAILA

NESKEN EUSKADIKO TXAP.
Urdaibai-Verkol Aloña 17-07

LEHENENGO TERRITORIALA
Bergara-Antt-Solflan Elgoibar 19-24
Ormaiztegi-Ford Mugarri Arrasate 23-31
Hondarribia-Arrikruz Oñatiko Kobak 28-28

BIGARRENGO TERRITORIALA
Arrasate Esku Balo-Urola Eutsi 28-20

GAZTE MUTILAK
Usurbil-Bergara 29-20
Amenabar Zarautz-Aloña Mendi 31-22
Elgoibar-Gatz Museoa Jakion 26-36

GAZTE NESKAK
Arrasate-Ereintza Aguaplast 9-34
Bergara atsedena
Verkol Aloña atsedena

KADETE MUTILAK
Urnoibita Elgoibar-Aloña Mendi 35-13
Legazpi-Gatz Museoa Jakion 14-13

KADETE NESKAK
Verkol Aloña atsedena

• LEHENENGO MAILA

Gatz bako partidua ikusi genuen

Ezer gutxi zuen jokoan Arrasateko taldeak, eta partidua tramite hutsa izan zen; izan ere, gehiago zirudien entrenamendua partidua baino

MUGARRI ALKESA

69-92

PADURA

Mugarri Alkesa | Gamarra, Domingo (3), Mallabiabarrena (12), M. Biain (10), Barberena (14), Herzog (7), Quintana, Hernandez (7), Alarcia, Aranburu (11), I. Biain eta Isasa (5).

Padura | Cabello (25), Juan (17), Nieva (8), Aldekoa, Martin (2), Madariaga (10), Aparicio (6) eta Martinez (24).

Golak: Lehenengo laurdena 15-16. Bigarren laurdena 31-43. Hirugarren laurdena 45-75. Laugarren laurdena 69-92.

PADURA AURRETIK HASIERATIK

Mikel Biain, Barberena, Herzog, Hernandez eta Isasa izan zen Zurututzaren hasierako bostekoa. Ondo eutsi zioten lehen laurdenari, baina Arrigorriagako taldea aurretik joan zen markagailuan.

Egia esan, bizkaitarrak ez dira talde gogorra Arrasatekoendako; sailkapeneko erdiko postuetan daude eta ez zuten joko maila handirik ekarri Iturripera. Kale asko egin zituzten saskiratzeetan eta baloi ugari galdu zituzten, baina Zurututzarenak ez ziren hobeto ibili, eta markagailuko aldea asko zabaldu zen.

Hala, bigarren laurdenean hasi zen tarte zabaltzen. Bost puntuko zuloa egin zenean Zurututzak Mallabiabarrena eta Aranburu atera zituen kantxara, baina bizkaitarrek etxeokak baino partzial hobea egin zuten. Atsedenaldirako 12 puntu ziren aurretik, 31-43.

Hirugarren laurdenean aldea gehiago zabaldu zen. Barberenak lan ona egin zuen, baina Padura taldekoek hiruko bost saskiratze egin zituzten eta tapoiak egiten ere



JOSETXO ARANTZABAL

Zurututzak taldeko jokalaririk gazteenei jokatzeko aukera eman zien zapatuan.

fin aritu ziren. Kanpokoek 30 puntuko aldea hartu zuten markagailuan. Arrasatekoak ez ziren larritu. Gamarrak, Quintanak, Alartziak eta Iñigo Biainek aulkitxoan jarraitu zuten.

Hala, azken laurdenean Arrasateko entrenatzaileak Aranburu eta Mallabiabarrena jarri zituen jokoan berriz ere, emaitza zertxobait makillatzeko-edo. Azkenean, aldea 23 puntukoa izan zen.

2. FASEAREN ATARIAN

Arrasatekoek laster emango diote hasiera txapelketako bigarren faseari. Azken jardunaldietako neurketak motelak izan dira eta zapatuan, esaterako, ikusle gutxi hurbildu ziren Iturripera Paduraren aurkako norgehiagoka ikustera. Izan ere, jarraitzaileek ere badakite bigarren fasearekin batera itzuliko dela lehiakortasuna Iturriperako kantxara.

• NESKEN 2. MAILA

Eskoriatzarrek azken postuan amaituko dute urtea

LAMAISON

71-51

ESKORIATZA

A.G.

Eskoriatzako neskek gaizki bukatu dute urtea; izan ere, Lizarrako Lamaison taldearen aurka 71-51 galdu zuten Javi Corbalen neskek.

Eskoriatzarrek ondo hasi zuten partidua; ondo hartu zuten lekua kantxan, eta hori dela-eta 11-14ko partziala izan zuten alde lehen laurdenean.

Bigarren laurdenean, berriz, oso txarto jokatu zuten. Baloi asko galdu zituzten erasoan, eta Lizarrakoei kontraerasoan ateratzeko aukerak eman zizkieten. Hala, Eskoriatzako opariak aprobetxatuz, 32-23 aurreratu zen etxeko taldea.

Hirugarren eta laugarren partzialietako emaitzak 18-12 eta 21-16 izan ziren. Horren harira, Javi Corbal eskoriatzako entrenatzaileak adierazi digunez, urduritasun handiarekin jokatu zuten neskek. Lizarrakoei markagailuan alde nabarmena hartu zutenean, konfiantza galdu zuten eskoriatzarrek eta huts asko egin zituzten. Hala, bada, urtea azken postuan amaituko dute eskoriatzarrek; ligan partidu bakarra irabazi dute.

Larraitz Zeberio

Bigarren faseari begira dago azkenaldian Zurututzak entrenatzen duen taldea, eta nabaritu egiten da. Hala, zapatuan 69-92 galdu zuen Arrigorriagako Padura taldearen aurka. Neurketa motela izan zen, ikusteko gatzik gabekoa, entrenamendu bikaina izan zen taldeko gazteendako.

Aloñak irabaziz amaitu du urtea

ALOÑA MENDI

80-62

AMETSA

Aloña Mendi | Goitia (4), Madariaga (11), Otamendi (14), Arregi, Zabaleta (20), Anduaga (15), Blanco, Gorostiaga, Gartzia, Anton, Mendiola (4) eta Madinabeitia (12.)

Ametza | Gonzalez (20), Martinez, Larreategi, Sierra (15), Malaga, Losada (1), Etxeola (1), Arriola, Diaz, Arriola (11), Sanchez (1) eta Fernandez (13).

Laurdenetako emaitzak: Lehenengo laurdena 15-14. Bigarren laurdena 39-24. Hirugarren laurdena 64-41. Laugarren laurdena 80-62.

Arantzazu Ezkibel

Oñatiarrek ez zuten arazorik izan Eibarko taldea mendean hartzeko. Etxekoek oso ondo hasi zuten partidua, lehenengo minutuetan 15-6ko partziala eginda. Hala ere, lehenengo laurdena bukatu baino lehen, Aloñak beherakada izan zuen eta eibartarrek 0-8ko partziala egin zuten. Lehenengo laurdena, horrenbestez, 15-14 amaitu zen.

Bigarren laurdenean, oñatiarrek alde handia hartu zuten markagailuan. Oso joko ona egin zuten, aurkariari taulara igotzen laga gabe. Eta presioak bere fruitua izan zuen, Aloñakoek baloiak lapurtuz saskiratze asko egin



JOSETXO ARANTZABAL

Etxekoen aurrean partidu ona jokatu zuten Gorka Judezen mutilek.

zuten-eta. Atsedenaldira 39-24 aurretik iritsi ziren etxeokak.

JOKALARIEK JARRERA ONA

Gorka Judez entrenatzailea oso gustura agertu zen jokalariek

izandako jarrerarekin. Hirugarren laurdenean gogor aritu ziren Aloñakoak eta 30 puntu aurretik jarri ziren. Hala, azkenean, intentsitatea jaitsi egin zuten arren, 80-62 irabazi zuen Aloñak.

Emaitzak

MAILAZ MAILA

LEHENENGO MAILA
Mugarri Alkesa-Padura 69-92

NESKEN BIGARRIN MAILA
Lamaison-Eskoriatza 71-51

SENIOR MUTILAK
Candy-Bkl Caf 50-58
Aloña Mendi-Ametza 80-62

SENIOR NESKAK
Aloña Mendi atsedena

GAZTE MUTILAK
Araneta atsedena
Mugarri Alkesa atsedena
Aloña Mendi atsedena

GAZTE NESKAK
San Patricio-Eskoriatza 54-47
Añorga-Aloña Mendi 30-25

KADETE MUTILAK
Mugarri Alkesa Arrasate atsedena
GSB Acero-Aloña Mendi 39-55

KADETE NESKAK
Bergara atsedena
Alde Zaharra-Eskoriatza 50-37

Eskola kirola

OÑATI

"Beste kirolak bezala, herri kirolak egiteko aukera izatea gogoko dut"

Oñatiko Zubikoa kiroldegian herri kirolak egin zituzten zapatuan gaztetxoek

Ordubeteko saioak egin zituzten adin bakoitzeko neska-mutikoek

Taldeen artean nahastu eta herri kiroletarako talde berriak egokitu zituzten

Geaxi Ezpeleta

Oñatiko Zubikoa kiroldegira heldu ginenean neska-mutikoak herri kirolak egiten harrapatu genituen. Eta horren harira jardun genuen eurekin hizketan. Herri kirolak atsegin dituztela aitortu ziguten, eta eskola kirolaren barruan sartzea "ideia oso ona" iruditzen zaie. Harritzekoa dena da neska guztiak "kako txak batzen da nik gustukoaren dudana" erantzun izana.

Hainbat herri kirolean parte hartzeko aukera izan zuten gaztetxoek. Hasi baino lehen, eta berotzeko jolas batzuk egin ondoren, txinga proban, sokatiran, kako txak batzen eta giza proban jardun zuten, besteak beste.

Kiroldegian taldeetako neska-mutiko guztiak ez egon arren, giro oso polita eta atsegina zegoela igarri genuen.

TALDEAK EGOKITU ZITUZTEN HERRI KIROLAK EGITEKO

Zapatuko saioan antolatzaileek esan zigutenez, egokiena iruditu zitzaieen taldeak elkarren artean nahastea. Hartara, alebina kasuan bederen, gaztetxoek ez zuten jokatu euren ohiko taldearekin. Talde askotariko neska-mutikoak nahastu eta, argazkietan ikus daitekeen moduan, herri kirolak egiteko talde berriak sortu zituzten antolatzailerik.



GEAXI EZPELETA

Horiak. Nerea, Amaia, Igone, Jon eta Jokinek osatutako taldeari egokitu zitzaieen horiz jantzea.



GEAXI EZPELETA

Koloretakoak. Irati, Oihane, Amaia, Ander eta Borjak sortutakoa izan zen talderik koloretsuena.



GEAXI EZPELETA

Urdinak. Irene, Alazne, Elisabet, Mikel eta Josebak jantzi zituzte talde urdineko elastikoak.



GEAXI EZPELETA

Laranjak. Kristina, Xanti, Iñaki, Leire eta Mainerrek osatu zuten herri kirolean parte hartzeko talde laranja.

GAZTETXOEK HERRI KIROLAK EGITEA GOGOKO DUTE



XANTI ETA IÑAKI | AZERIAK

"Herri kirolak atsegin ditugu, orokorrean. Gure gogokoena sokatira eta aizkolari zara. Eskola kirolaren barruan herri kirolak egitea ona da".



MAIDER | KOALAK

"Gehien gustatzen zaidan herri kirola kako txak batzea da, korrika egin behar delako".



KRISTINA | SORGINAK

"Eskola kirolaren barruan, beste kirolak bezala, herri kirolak egiteko aukera izatea gogoko dut".



ALAZNE | TIGREAK

"Herri kirolak gogoko ditut politik eta gureak direlako. Gustukoaren dudana kako txak jasotzea da".



LEIRE ETA AMAIA | TIGREAK

"Gureta herri kirolak gustukoena kako txak batzea da, ez delako minik hartzen. Sokatiran, esaterako, eskuak mindu egingen dira, eta hori ez dugu gogoko".

Pilota

• PILOTA PROFESIONALA

Eugi-Eulate eta Gonzalez-Apeztegiak bizitasun gutxiko partidua jokatu zuten

Arantzazu Ezkibel

Eugi eta Eulate bikotea (gorriz) 22-17 nagusitu zitzaizen Gonzalez eta Apeztegia bikoteari (urdinez). Domeka arratsaldean Bergarako frontoian jokaturako partidua bizitasun gutxikoa izan zen. Tanto luzeak egin zituzten pilotariek.

Partiduko lehenengo sakea urdinentzat izan zen. Hala ere, lehenengoa gorrien aldeko tantoa izan zen. Eugi eta Eulate 4-1 aurreratu ziren markagailuan. Alde hori murriztea lortu zuen bikote urdinak, 4-5ra iritsi arte. Baina, azkenean, gorriek 7-0eko partziala egin zuten eta partidua 22-17 irabaztea lortu zuten.

Eugi eta Eulatek 4 tanto berterik ez zuten egin; beste guztiak



JOSETXO ARANTZABAL

Eugik tanto gutxi egin zituen dejadaz.

urdinen akatsak izan ziren. Gonzalezek ez zuen arratsalde ona izan domekan Bergarako frontoian, tanto asko galdu zituen-eta.

BESTE EMAITZAK

Capellan eta Nalda III.a bikoteak 22-17 irabazi zion Galarza eta Elkoro bikoteari.

• ANTZUOLAKO PILOTA TXAPELKETA



JOSETXO ARANTZABAL

BARIKUAN FINAL PAREKATUA IZANGO DA

Zapatuan jokatu ziren finalerdiak eta finalerako sailkatu diren bikoteak Andoitz Aranburu-Iker Irizar eta Luis Larrea-Jon Aranguren dira. Mikel Bargiela eta Jon Pagaldai hartu zituzten mendean Aranburu eta Irizarrek, 18-9. Aitor Aranguren eta Xabin Muruamendiarezek, aldiz, Luis Larrea eta Jon Aranguren garaitu zituzten, 10-18. Finala egubakoitzean jokatu da, hilaren 23an. Iluntzeko 7etan hasiko da ikuskizuna Antzuolako pilotalekuan. Herriko mutikoeek partidu bat jokatu dute finalaren aurretik. Eta txapelketa amaitutakoan afaria egingo dute pilotariek Olalde elkartean.

Santamasetako V. Boulder Txapelketa



JOSETXO ARANTZABAL

70 parte-hartzaileetatik, bederatzi izan ziren emakumezkoak.

Markel Mendieta eskalatzaile arrasatearra nagusitu zen elite mailan

Ander anaiak sari berezia jaso zuen, 17 urterekin laugarren egin zuen-eta

Larraitx Zeberio

Markel Mendieta nagusitu zen zapatuan Uarkapeko rokodromoan jokatu zen Boulder Txapelketan. Markel elite mailan nagusitu zen eta haren anaia Anderrek sari berezia jaso zuen, 17 urterekin laugarren sailkatu zelako. "70 eskalatzailek hartu dute parte aurten txapelketan, eta oso pozik gaude parte-hartzaile kopurua bikoiztu egin delako", esan digu talde antolatzaileko kide Mikel Castilok. "Laguntzaile eta babesle guztiei eskerrak eman beharrean gaude".

FINALAK IKUSMIN HANDIA PIZTU ZUEN

Goiz eta arratsaldean jokatu zen txapelketa, baina finalak piztu zuen ikusmin handiena. Gazte mailan Arrasateko Miriam Mulas eta Maite Uribealgo nabarmendu ziren. Maila herrikoian, berriz, Oihane Epelde beragarra hirugarren sailkatu zen Oxel Arrieta arrasatearraren moduan. Elite mailan, azkenik, Markel Mendieta izan zen jaun eta jabe. Mikel Odriozola zestozko bigarren sailkatu zen eta Joseba Saiz gasteiztarra, berriz, hirugarren.

KONPONKETAK DROKORREAN ETA BERRIKUNTZAK

- SUKALDEAK
- HORMA
- ARMAIRUAK
- LEIHOAK
- ATEAK
- TARIMAK
- ESKAILARAK

- OSAGARRIAK
- FLEX KOLTZOIAK
- GRADULUX
- PERTSIANAK

ERAKUSKETA
Bidekurutzeta, 38
Tel / Fax 943 76 31 03

ARROZTEGIA
Urteaga, 20
Tel / Fax 943 76 11 73

20570 BERGARA
carp.arregui@telepolis.com
www.goiena.net/blogak/arregi

HARITZ GALLASTEGI | ELGETARRA, ATHLETIC TALDEA JARRAITZEN DUEN KAZETARIA

"Atzelari asko izateak ez du defentsa ona ziurtatzen"

Xabier Urtzelai

Hirugarrenez, Realaren kontrarioak buelta eman zion partiduari.

Beldurra da hori, Madrilen kontra eta El Sardinero gertatutakoa errepikatzeko beldurra. Amorrortuk atzelariak zelairatzeko apustua egin zuen, eta ez zuen asmatu. Konfiantza eza dagoenean gertatzen dira horrelakoak. Orain momentuan, Osasunari ez litzaioke horrelakorik gertatuko, hirugarren gola egingo luke, eta listo.

Gaitza da 45 minutuan defentsa lanetara mugatuta irabaztea.

Clementek ere esaten du, kontzeptua dela garrantzitsua. Atzelari askorekin egoteak ez duela zertan ondo defendatu behar dela ziurtatzen.

Athleticeko zale eta taldea jarraitzen duen kazetari: zelakoak dira atzokoa moduko domekak?

Aspaldian izandako domeka onena izan zen atzokoa, eta baita lasaia ere. Marijaiarekin batera joan ziren Athleticen garaipenak, eta badirudi Olenzerok ekarri duela oraingoa.

Mamitsuak izaten dira Clementeren prentsurrekoak?

Bai, noizean behin barre apur bat ere egiten dugu bere kontura. Bromak egiten ditu, baina batzuetan pasatu ere egiten da. Noizean behin seriotasun apur bat botatzen dut faltan.

Zer du ona? Eta txarra?

Egon den talde guztietan jokalariekin harreman ona izan du. Berak hartzen du protagonismo dena, eta jokalariei presio handia kentzen die. Bestalde, baina, Clementek zuzendu dituen taldeek ez



JOSETXO ARANTZABAL

Haritz kazetaria da eta Athleticen partiduak jarraitzen ditu.

dute joko onik egin. Orain, baina, hori bigarren mailako kontua da. **Bihar eta etzi jokatuko dute urteko azken jardunaldia. Bota euskarri taldeen gainera komentarioa.**

Esnatzen dabilen taldea da Zaragoza, eta horretan ahalegin-

tzen dabilen Athleticen kontra jokatuko du. Realaren eta Cadizen arteko partiduan tentsio handia izango da; behean dagoen taldeak gero eta beherago dagoenaren kontra jokatuko du-eta. Osasuna sekulako denboraldia egiten dabil, baina kontuz Atletico de Madrilekin, gorabehera handiak dituzte, baina kalitatea soberan. Eta zulo-zuloan dauden Alavesek eta Betisek garrantzia handia duen norgehiagoka jokatuko dute; Betisek Oliveiraren falta igartzen du, baina Alavesek ez du talde moduan jokatzen.

"Barre egiten dugu Clementerekin, baina batzuetan pasatu egiten da"

Emaitzak eta sailkapenak / Espainiako Liga Txapelketa

EMAITZAK

Mallorca-Athletico	2-2
R.Madril-Osasuna	1-1
Racing-Malaga	1-1
Alaves-Valentzia	0-1
Espanyol-Zaragoza	2-2
Sevilla-Reala	3-2
Vila-real-Getafe	2-1
Athletic-Betis	2-0
Celta-Deportivo	0-3
Cadiz-Bartzelona	1-3

HURRENGOAK

Valentzia-Mallorca
Betis-Alaves
Zaragoza-Athletic
Deportivo-Espanyol
Bartzelona-Celta
Reala-Cadiz
Getafe-Sevilla
Malaga-Vila-real
R. Madril-Racing
Osasuna-At. Madril

SAILKAPENA

	Puntuak	J	I	G	B	GA	GK
1. Bartzelona	37	16	11	1	4	41	14
2. Osasuna	35	16	11	3	2	23	15
3. Real Madril	29	16	9	5	2	28	17
4. Vila-real	29	16	8	3	5	25	16
5. Deportivo	29	16	8	3	5	23	14
6. Valentzia	29	16	8	3	5	23	17
7. Sevilla	26	16	7	4	5	27	12
8. Celta	26	16	8	6	2	18	19
9. Getafe	21	16	6	7	3	22	23
10. Atletico	19	16	4	5	7	17	17
11. Zaragoza	18	16	3	4	9	17	20
12. Reala	18	16	5	8	3	24	34
13. Malaga	16	16	4	8	4	22	23
14. Racing	16	16	3	6	7	12	19
15. Mallorca	16	16	4	8	4	16	25
16. Athletic	15	16	3	7	6	16	20
17. Espanyol	15	16	3	7	6	13	20
18. Cadiz	14	16	3	8	5	11	19
19. Alaves	12	16	2	8	6	14	24
20. Betis	12	16	2	8	6	10	24



Kiniela

KINIELA

1. Vila-Real-Getafe	1
2. Sevilla-Reala	1
3. Cadiz-Bartzelona	2
4. Espanyol-Zaragoza	X
5. Athletic-Betis	1
6. Alaves-Valentzia	2
7. Mallorca-Athletico	X
8. R.Madril-Osasuna	X
9. Racing-Malaga	X
10. Levante-Sporting	X
11. Pol.Ejido-Tenerife	1
12. Murtzia-Xerez	2
13. Albacete-Numantzia	X
14. Gimnastic-Castellon	X
15. Celta-Deportivo	2

Harmailatik

Amorrortuk ez du asmatu



Xabier Urtzelai

Aldaketak. Beti pentsatu izan dut kazetariak errazegi kritikatzeko dituztela entrenatzaileek hartutako erabakiak. Euren ezagutzen dute talde ondoen, eta baita jokalariek momentu horretan zelan dauden. Horrekin guztiarekin, ezin ulertu atzokoa Amorrortuk egindako aldaketak:

Lehena, Nihat. Lehenengo zati txukuna egin zuen Realak. Sevillak izan zuen baloia, baina Realarenak izan ziren gol aukera garbienak (5). Kontraerasoan jokatu zuten donostiarrek, eta Nihat zen aurrean erreferentzia. Bigarren zatian hamarrek geratuta, turkiarra zen taldeak erasoan izan zezakeen esperantza txikienetako bat. Eta bera kendu zuen Amorrortuk.

Bigarrena, Prieto. Nihat barik hasi zuen Realak bigarren

zatia. Eta, Xabi Prietoren ardura zen, ahal zuen moduan, baloiari aurrealdean eustea. Eta bigarren aldaketan, Prieto kanpora. Denboraldi osoan Amorrortuk ez du Boris kontutan izan; atzokoan bai.

Hirugarrena, Uranga. Eta 70. minutuan etorri zen hirugarren aldaketa, aurrealdean gura beste borroka egin zebilen Gari Uranga kendu zuen, Larrea zelairatzeko. Bistan zegoen Cifuren kanporaketarekin Real defentsan indartu behar zela, baina aurrelari bat bera ere ez zuen Amorrortuk zelaian utzi, Gabilondo zen jokalaria erasokorrena.

Izaera. Atzokoan inoiz ez bezala islatu zuen entrenatzailearen izaera jokalarien jarreran. Zetorkionaz kikilduta, Amorrortuk talde osoa atzean sartzea lortu zuen. Pena, lehen zatia ona egin zuten-eta.



Osasuna

Osasunak bai. Hamar jokalarirekin jokatuta ere Osasunak ondo eutsi zion Madrili Haritz Gallastegik dioen moduan, konfiantza egotearen aldean.



Garitano

Bigarrenez, taldeak gehien behar zuenean, zelai erdian zentzurik ez zuen falta egin, eta taldea bederatziz jokalarirekin utzi zuen. Gutxirako balio izan zuen denbora galtzeko egindako ahalegina.

Euskal taldeen asteko hamaikakoa



Krosa

• 28. ARRASATEKO SANTAMASETAKO KROSA

Aritz Kortabarria izan zen azkarrena eta Trikimasa koadrilak eraman zuen bildotsa

Antolatzaileak pozik daude parte-hartzea handia izan delako, gehienbat gaztetxoan mailan

Larraitz Zeberio

Pozik egoteko moduan dira aurtengo Arrasate Atletiko Taldeko kideak. Atzo, domeka, Santamasetako krosa antolatu zuten 28. urtez, Enrike Kabiketaren izenean egin den hirugarrena. Gaztetxoendako lasterketak egin ziren lehenik eta Koadrila Arteko Krosa 12:30ean. Proba horretan, 78 lagun elkartu ziren Seber Altubeko irteeran, korrikalari gazte zein beterranoak.

ARITZ KORTABARRIA AZKARRENA

Sei kilometroko ibilbidea bete behar izan zuten lasterkariek Arrasateko kaleetan zehar. Eta laster nabarmendu ziren Antxintxika taldeko Aritz Kortabarria eta Zuhaitz Ezpeleta. Hala, batera iritsi ziren plazako helmugara, baina Aritzek gurutzatu zuen lehenengo. "Giro polita sortzen du lasterketa honek", adierazi zigun Aritzek proba amaitu bezain laster. "Lastima lasterkari asko gaur (domeka) Azpeitian jokatu den Gipuzkoako Kros Txapelketara joan izana". Ondoan zuen Zuhaitz

Ezpeleta, iazko irabazlea: "Herrikoa izanda garrantzitsua da proba honetan parte hartzea. Urteik urtera jende gehiago etortzen da, eta polita da".

Marka bikaina egin zuten Antxintxika taldeko bi lasterkariek, baina ezin izan zuten taldekako saririk eskuratu: "Bost lagun behar dira puntuatzeko eta bakarrik etorri garela uste dut", esan zigun Zuhaitzek.

Koadrila azkarrena Trikimasa izan zen eta bildotsa eraman zuten etxera. Kapikua taldeak bigarren egin zuen eta lau untxi irabazi zituen. Hirugarren saria, bost oilasko, Presoak Etxera taldeak eskuratu zuen.

Sailkapena

BAKARKAKO IRABAZLEA (MUTILAK)
Aritz Kortabarria (20:05)

BETERANO IRABAZLEA (MUTILAK)
Javier Irazabal (24:12)

BAKARKAKO IRABAZLEA (NESKAK)
Marifran Alonso (25:29)

BETERANO IRABAZLEA (NESKAK)
Maria Jose Velasco (26:30)

LEHENENGO SENIORRA (NESKAK)
Marifran Alonso (25:29)

KOADRILEN SAILKAPENA (MUTILAK)
1. Trikimasa
2. Kapikua
3. Presoak Etxera

KOADRILEN SAILKAPENA (NESKAK)
1. Las Chicas



JOSETXO ARANTZABAL

Aurtengo edizioan saritutako guztiak, krosa amaitu ondorengo sari banaketan.

94 gaztetxok hartu dute aurten parte krosean

Goizeko 11etan hasi ziren gaztetxoendako lasterketak Arrasateko alde zaharrean. Adin askotariko zortzi taldetan banatuta, 7 eta 14 urte bitarteko 94 gaztetxok hartu zuten irteera Santamasetako krosean. Hauek izan ziren irabazleak, nor bere mailan: Guillen Mar, Lore Mar, Iñigo Uribarren, Malen Ruiz de Azua, Julen Azpikueta, Iker Pavon, Aitor Uribetxebarria eta Julen Garai. "Ume asko etorri dira aurten", esan zigun talde antolatzaileko Fernando Zufiriak. "Hori oso datu baikorra da guretzat".



• ARETO FUTBOLA, 1. MAILA



JOSETXO ARANTZABAL

ALOÑAK 4-5 GALDU ZUEN ATAUNEN AURKA

Atsedendian 4-1 irabazten joan arren, Aloñak 4-5 galdu zuen Ataunen aurka. Lehenengo gola Aitzolek egin zuen eta handik gutxira Josebak bigarrena sareratu zuen. Hirugarrena ere Josebak sartu zuen eta laugarrena Mikelek. Baina partidua erabakita zegoela ematen zuen arren, bigarren zatian Aloña behera etorri zen eta oñatiarrei lau gol egin zizkieten. Puntuak Ataunera ihes egin zuten, beraz.

• ERRUGBIA, GAZTE MAILA



JOSETXO ARANTZABAL

ARRASATEK 21-3 IRABAZI ZION BERA BERARI

Pozik egoteko moduko emaitza lortu zuten zapatuan Arrasateko mutilek. Bera Bera sailkapeneko talde onenetariko da eta 21-3 hartu zituzten mendean Garagartzakoek. Lehen zatian bikain aritu ziren arrasatearrak eta hiru entsegu egin zituzten atsedendian aurretik. Bera Berakoek hiru puntu besterik ez zituzten lortu. Bigarren zatia parekatuagoa izan zen eta ez zuen inork entsegurik egin.

• ARETO FUTBOLA, 3. B MAILA



JOSETXO ARANTZABAL

ARETXABALETAK, ETXEAN BERDINDU

UDA Mercedes Goiko Lenizek launa berdindu zuen Zaldiriaren aurka. Etxekoek partidu ona jokatu zuten. Denbora guztian aurretik izan ziren aretxabaletarrak, baina partidua amaitzeko hiru minutu falta zirela, hiru falta bikoitz izan zituzten aurka eta azkenean berdinketarekin konformatu behar izan zuten. Aretxabaletako taldean, Joseba, Martin, Aitor eta Ander izan ziren gogileak.

KULTURA Aisialdia eta Zerbitzuak

- Gabonetako kontzertuan pilotalekua bete zuten Bergarako musika taldeek | 24
- Baron Rojo taldeak Arrasteko 3.60 aretoan joko du bihar, maritzena | 27

Julia Barnesekin idatzi duen 'Early Trilingualism' liburuaz jardun dugu | 26

EUSKAL HERRIKO BERTSOLARI TXAPELKETA



ARGAZKI PRESS

BEC lepo bete zen atzo. 13.000 ikusle batu ziren bertso finala ikusteko.

FINALA BILBAO EXHIBITION CENTER-EN | UNAI ITURRIAGAREN AURKA BURUZ BURUKOA JOKATU ZUEN EGAÑA

Bertsotan dena eman ondoren, Andoni Egaña laugarren aldiz txapeldun



Irati Agirreazaldegia

Maila handiko saioa eskaini zuten zortzi finalistek domekan; bakarkakoan entzun ziren alerik borobilenak eta ofiziotan ere izan zuten zerekin gozatua entzulegoak

Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusiaren finala zen jokoan domekan Barakaldon. "Bertsozale denen festa izan dadin txapelketa" esanez bota zuten hasierako agurra Unai Iturriagak. Izan ere, festa usainean sartu ziren zortzi bertsolariak BECeko oholtzara. Txalo artean ez ezik euren eserlekuetatik altxatu eta zutik hartu zituzten entzu-

leek Igor Elortza, Andoni Egaña, Jon Maia, Amets Arzallus, Sus-trai Kolina, Maialen Lujanbio eta Unai Iturriaga.

Agurrak kantatu ostean, Bernardo Mandalunizen esanetara zortziko handian ekin zioten finalako lan puntuagarriari.

Motel antzean ekin zioten ofiziotako lanari. Baina aipatzekoa Maiak eta Arzallusek etxe berria-

ren hipoteka sinatzen ari zen bikote gaztea irudikatuz egindako saioa; bankuko hitz serioak eta bertsoekin lotutako txisteak uztartuz kantatu zuten ale politik. Bestalde, barreak sortu zituen Lujanbiok eta Iturriagak zortziko nagusian egindako azken jardunak. Aspaldiko partez asteburuan bakarrak zeuden hiru umeren guraso modura polito jardun zuten.

Zortziko txikian ere umore giroko lau saio entzun genituen. Parrandatik bueltan bazkaritarako prestatutako txipiroiak jaten aurkitu zuen Jon amak Andoni semea eta bien arteko elkarrizketa bizia izan zen. Unai eta Sustraik egindako saioa ere aipatzekoa izan zen: nagusiarekin autoan abiada bizian zihoan langilearen beldurra agerian geratu zen.

Puntuari erantzunez bina bertso erantzun zituzten ondoren eta denetariko bertsoak entzun ziren ariketa honetan.

Hamarreko txikikoan umorea eta bertso serioagoak saltoka ibili ziren saio batetik bestera. Denak ere bertsoaldi borobilak. Maialenek eta Jonek zuhaitz landatu

berriaren eta makilaren paperean kantatutakoan aipatuko nituzke gustukotzat, besteak bazter laga gabe.

Kartzelakoa zuten goizeko azken lana. Honakoa zen gaia: Aspaldiko partez bi begiak busti zaizkizu. Gaiak hala eskatuta edo, guztiek bertso hunkigarriak eskaini zizkiguten entzuleoi. Batek baino gehiagok malkoak begi ertzean izan zituen.

BEC, bertako giroa eta txapelketa izan zuten gehienek bertso tarako gai. Andoni Egañaren hiru bertso zuzen bezain bete; Amets Arzallusen lana, Aitor Mendiluzek barru-barrutik botatako bertsoak, eta Iturriagaren azken bertsoek merezi dute aipamenik.

EUSKAL HERRIKO BERTSOLARI TXAPELKETA

“Izan ziren, gaur badira, gu ere izango gara”

Bertso eskoletako ordezkariak zortzigarren sailkatu Jon Maiari saria ematean kantatutakoa da hau. Euskal Herriko zortzi probintzietako neska-mutikoa izan ziren oholtza gainean; Arabaren izenean Xabier Igoa aramaioarra.

Doinu berriak Txapelketan eta finalean

Txapelketan barrena zenbait doinu berri plazaratu dituzte bertsolariak. Finalean ere entzun genuen sekula orain artean bertsoan erabili gabeko doinurik. Maialen Lujanbiok eta Igor Elortzak bakarkako lanetan erabilitakoak, hain zuzen ere.

Bazkaritako mahai denak leporaino beteta

Guztira 13.000 entzule ziren BECen eta bazkaritako orduan izan ziren komeriak. Bertsozale elkarteak 2.000 lagunendako bazkaria zuen gertu; beste askok kanpora jo zuten; eta etxetik ekarritako bazkaria jateko izan zen lurrean eseri behar izan zuenik.

Alberto Telleriarentzat Espaloiko porra

Orden guztia asmatu ez duen arren –bosgarrena eta seigarrena lekuz aldatu zituen–, berea izan zen Espaloian jokaturako Txapelketako porrarik zuzenena. Bi lagunendako afari berezi eta ona irabazi du Albertok.

Bazkaritan indarrak hartu zituzten entzuleek bederen. Saioa hasi aurreko “olatuak” eta zarak izan ziren horren lekuko.

• NOLA IKUSI DUZUE SAIOA? ETA TXAPELDUNA?



ASIER IBAIBARRIAGA | BERTSOZALEA

“Maila bikaina egon da. Koska bat atera die denei Andonik”

“Orokorrean maila oso ona, bikaina; arratsaldean apur bat jaitsi egin da, batez ere bakarkako lanetan. Unai, esaterako, baxuxeago sumatu dut. Hala ere, maila oso onean aritu dira. Andoni oso erraz ikusi dut eta orokorrean, koska bat atera die denei. Gaietik dabil”.



NEREA URRIA | BERTSOZALEA

“Saio beroa eta hunkigarria izan da. Andonik oso ona dela erakutsi du”

“Saioa oso ondo ikusi dut, maila oso altua egon da eta jendea oso animatuta egon da. Saioa oso beroa egon da, hunkigarria izan da. Orokorrean maila oso ona igarri da. Aitor Mendiluze, agian, flojo samar. Eta Andonik erakutsi du bertsolari oso ona dela eta maila oso altua duela”.



AINHOA AGIRREAZALDEGI | BERTSOZALEA

“Ekarpen asko ikusi ditut: bi doinu berri eta oinetan hitz berri pila bat”

“Ez da erraza 13.000 lagun erantzutea, egun bateko kontua izanik, baina saioa oso ona izan da. Gauza on asko eta ekarpenak ere ikusi ditut: bi doinu berri eta oinetan hitz berri pila bat. Andoni, beti Andoni, maisua da. Maisu gehiago ere egon dira, baina horixe da txapelketa azken baten”.



ANDERE ARRIOLABENGOA | BERTSOZALEA

“Andonik asmatu egin du. Unai bere txapelketarik onena egin du”

“Kristoren saioa izan da. Giro oso ona egon da eta jendea oso bero. Andoni, betiko moduan, oso oso ondo ibili da, oso zuzen: serio behar zuenean serio eta sakon eta umore gaiak tokatu zaizkionean, umoretsu. Asmatu egin du. Unai, berriz, bere txapelketarik onena izan da”.



PATXI GOIKOLEA | BERTSOZALEA

“Andoni Egañak etxeko lanak inork baino hobeto eginda ekarri ditu”

“Saioa ederra izan da eta ikusteko lekua bikaina. Egaña seguru ikusi dut, maisutasun handiz eta etxeko lanak ondo eginda etorri da, inork baino hobeto. Amets ere ikaragarri gustatu zait, goizean punta-puntan egon da, baina arratsaldean ez, eta hemen ezin da horrelakorik egin”.



JESUS KORTABARRIA | BERTSOZALEA

“Guztiekin maila ona erakutsi dute, baina Andoni denek gainetik ibili da”

“Guztiekin erakutsi dute maila oso ona eta punta dezenteak egon dira; goizeko kartzelakoan ere bai. Gero sailkapena izaten dena da, eta horrela neurutz gero, ba horixe... Baina epaia justua da eta saioa bikaina. Andoni goizean baino arratsaldean hobeto ibili da, denek gainetik ibili da”.



Iban Arantzabal

Begiak bustitzekoa

Txolinduta dagoela esanez hasi zuen **Benardo Mandaluniz** aurkezleak, begiak puztuta. Zortzi bertsolariak ere halaxe jarraitu zuten bertsoak hartu duen entzuteaz-eta.

Jon Maiak bota zuen puntuan ia BEC-eko *batasuna nork ez duen igarri kantuan* eta errematatu *ari gara etorkizunari eta Euskal Herrian*. Izan ere, ez da makala bertsolari eta bertsozaleek lortu dutena. Bertsolari elkarteak ere mundial. Gipuzkoarren plaza izatetik Euskal Herriarena izatera pasa da, da! Ez dakigu euskal hiririk baden, baina *Labegaraiek utzitako basamortua euskaldunek bete* zuten.

Gogor, kalitatez, jendetzaren aurrean kemena eta indarra erakutsiz jardun zuten. Bertso entzule guztioi barrenak astintzen, mailuaz danbaka, begiak behin berriz bustiaraziz. Edozein ermita auzotan zaila bada, zailari erraz aurre eginez Euskal Herri osoarendako esanean. Bai, Euskal Herri guztiarendako, ze atzokoak nazio-gintzatik ere bazuen. Hasi gara, Barakaldotik, euskararen herria egiten. Honela kantatu zuten *Bereizten gaituen politikari esker / honek batu egiten gaitu / eta zer egun eder. Gauza handia ez beraz, / baina bagara zeozer*.

Txapelketatik asko izan du aurtengoak, baina nagusitik gehiago. Eta irabazlea? Irabazlea ez da inporta, bueno, azkenengo geratu ziren etatik banuen maiteago eta gertukoago dudana bat, zergatik ezkutatu.

Hala ere, atzo denok irabazi genuen, horren erakusgarri gaurko prentsa euskaldun eta baita erdalduna ere. Hurrengo erronkak plaza txikiagotatzen.

Maritxu eta Bartoloren papelean fin bezain ironiko biak ala biak. Etorkizunari begira ere zuri eta beltz, baina inolako zurikeriarik gabe. Bakarka aulkia zuten hitza eta Egañaren bederatzikoa aipatzekoa. Gaia emanda, berriz, biak ala biak txapelketaren pare gau eskolako irakasle papelean.

Epailentzat, eta egun osoko puntuen batura egin ostean, Andoni Egaña txapelkun. Goizeko saioan bestelako amets gaiztotan txapela galtzen bazuen ere, ametsa bete zuen domekan. Zuen dena ematera zatorrela esan zuen agurrean, eta entzuleoi txaloak ez ezik malkoak ere lapurtu zizkigun Imanol Lazkanoren eskutik txapela jantzi zuenean.

Andoni Egañaren burura eraman zuen laugarren txapela olatuak

Andoni Egaña zarautzerra da eta Zarautzik BECera iritsitako olatuak bere buru gainean jantzi du laugarren aldiz txapela. Ikasketaz Euskal Filologoa eta lanbidez bertsolari, artikulugile eta gidoigile. Liburu zenbaiten idazle eta oraingoan bere bizitzako liburuan kapitulu berri bat idatzi du, eta ez nolanahikoa. Lehenengoa da Euskal Herriko Txapelketa Nagusian lau txapel lortu dituen; Uztapideak hiru eskuratu zituen.

bizitasuna saioari. Zapatu gauean ohean amaitu zuten bi lankideren arteko asteleheneko elkarrizketa bertsoan eman zutenean.

Puntutan ere bizi jardun zuten. Ohituraz Belodromora joan ziren Sustrai eta Jon; Andoni eta Amets euren bikoteen kontura barrez jardun zuten eta entzuleei ere algara asko lapurtu zizkieten.

Arratsaldean ere bakarkakoan ale hunkigarri bezain txukunak entzuteko aukera izan zen. Txalotuenak Iturriagarenak, bere bereak ziren hiru bertso bota zituen eta. Egañak Madrilgo Auzitegiaren parean botatuko hirurak ere ez ziren nolanahikoa izan.

Bi hauek egin zuten hain zuzen aurrera; buruz burukora.

Oihu, txalo eta txistu. Denetarik entzun zen euren izenak esandakoan eta baita euren jardun bakoitzaren ostean ere.

Bakarkako lanetan bertso hunkigarriak eskaini zituzten bertsolariak

Andoni Egañak Imanol Lazkanoren eskutik jaso zuen laugarren txapela

EUSKAL HERRIKO BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA



BERTSOZALE ELKARTEA

UNAI ITURRIAGA | Hendaian legez, bikain aritu zen atzo durangarra. Xabier Lakaren eskutik eskura eskultura eraman zuen etxera



Aintzane Irizar

BECtekada itzela

Aitortu behar dut: ez naiz bertsozale amorratu horietakoa. Atzo, baina, BECen izan nintzen. Beldur nintzen luzeegi egingo ote zitzaidan, baina, baita zera ere! Hura zen, hura, giroa! **Igor Elortzak** agurrean esan zuen bezala, hura zen BECtekada. Badirudi, gainera, etorkizuna ziurtatuta dagoela, gazteak ginen eta nagusi, bai oholza gainean, baita bertso zaleen artean ere.

Zortzi lagun joan ginen Antzuolatik. Iritsi bezain laster porra egin genuen. **Egaña** zen nagusi porran, baina, **Aitorrek** eta **Ikerrek** argi zuten **Amets** zela txapeladuna. Azkenean, **Beñatek** irabazi zuen porra.

Eta horrelako egunetan gertatzen den moduan aspaldiko lagun maite batzuekin topo egin nuen; **Aloña** eta **Olaia** berriro ikustea izan zen eguneko oroitzapen politenetakoa.

Bukatzeko, eskerrak bertsolariari, gozamen hura sentiaraztearren. Bertsozaletu nauzue.



BERTSOZALE ELKARTEA

PANTAILA ERRALDOIA | 10x10eko pantaila erraldoian jarraitu zuten bertsozaleek txapelketa. Horrelako postal ederrak ikusi ahal izan ziren.



IRATI AGIRREAZALDEGI

BAZKALORDUAN | Antzuolar koadrila honek etxetik eraman zuen jatekoa BECera: Josu, Itziar, Iraia, Hodei eta Mikel argazkian.



IRATI AGIRREAZALDEGI

DEBAGOIENENKOA BEC-EN | 13.000 bertsozaleren artean, gure artekoa ere topatu genituen: argazkian antzuolarrak eta oñatiarrak.



IRATI AGIRREAZALDEGI

KAZETARIAK JOTA SUA | Hedabide mordoak jarraitu du Txapelketa. Ondo baino hobeto antolatuta zuten guztia Bertsozale Elkarteok.



IRATI AGIRREAZALDEGI

BEC-EN BAZKALTZEN | 6.000 LAGUN | BEC-eko seigarren pabilioia atondu zuten jantoki atzo. Batzuk han gertatutako bazkaria jan zuten; beste batzuk, etxetik ekarritakoa jan zuten.

ROCK | KOKEIN

Ohi baino soinu biluziagoarekin baina beti izan duten energiarekin jardun zuten

Non. Aretxabaletako Ezkutu tabernan.
Zenbat jende. 30 bat lagun.
Iraupena. Ordu eta erdiko emanaldia egin zuten era erdi akustikoan.

J. B.

Lotuta egon arren lehen diskoa urtebetez ezagutzera ematen ibili ostean, moldaera berri eta lasaiagoekin etorri ziren eibartarrak Aretxabaletara barikuan. Planteamendu erdi akustikoan, eta txeloaren doinu dotoreak lagun, Ezkutu tabernan erakutsi zituzten lehenengoz moldaketa berriak. Ohi baino soinu biluziagoarekin baina zuzeneko elektrikoetan besteko indarrarekin jardun zuten Zalaoa eta taldeak.

Emanaldi akustikoak proba bikoitza izan ohi dira taldeentzat: lehenengo, abestiek biluzik benetan funtzionatzen dutela frogatu behar dute, baina bigarrenik, taldeak gitarra riff-ak eta distorsio barik nola moldatzen den era-



kutsi behar izaten du. Hori horrela, Kokeinekoak ahalik eta adierazkorren agertzen saiatu ziren baliabide erdi akustikoekin, eta lan horretan pisu handien Zalaoaren ahots indartsuak hartu zuen. Taldeak, baina, neskatoaren lana borobildu eta estalki lasai eta dotore bikaina egin zien betiko abestiei.

NORABIDE BERRIAK

Abestien aldaketak, gainera, ez ziren moldaketa akustiko hutsetara mugatu. Horrela, abesti baten edo beste blues eta folkerrako joera nabariak agertu zituzten. Entsegu lokalean Kokein taldekoak fin aritu direla ematen du, eta emaitza gustagarria izan zen entzuleendako.



ROCK-AND-ROLLA | ATERKINS ETA SEÑOR NO

Kontzertu azkar eta etenik gabekoa egin zuten

M.B.

Egubakoitzean kontzertua egin zuten Aterkins eta Señor No taldeek Elgetako Espaloia antzokian. Berandu samar, 23:00ak aldera, Aterkins taldea izan zen eszenatokira igotzen lehenengoa. Rock-and-roll taldeak klasiko batekin ireki zuten emanaldia: Little Richarden *Good Golly*

Miss Molly-rekin. Beste bertsio batzuk ere egin zituzten, baina baita euren *Rock and Roll* diskoaren abestietako erdia jo ere. Gitarra jotzaileetako baten faltan egon arren, indartsu jardun zuten. Señor No ere bai, ohi bezala, eta jarraitzaile asko dituztela argi geratu zen. Biek hala biek kontzertu azkarra egin zuten, abesti arteko etenik gabekoa.

ASIER ALTUNA 'KIXI' | ZUZENDARI BERRIEN GOYA SARIETARAKO HAUTAGAIA

"Hor egotea garrantzitsua da gu ezagutzera emateko"

Marijo Deogracias

Aupa Etxebeste! Goya sarietara. Nola hartu duzue berria?

Gustura gaude, jakina. Baina jendea -kazetariak eta Madriletik lagunak- deika hasi zaigunean ohartu gara izan duen oihartzunarekin.

Corbachoren *El habitante incierto*, Cruzen *Tapas* eta Taberneroren *Vida y color* filmekin lehiatuko zarete. Ezagutzen dituzu?

Ez dut bat bera ere ikusi, baina akademikoak 1.000 bat lagun dira eta nork bere lagun eta gustuak ditu. Hala ere, hor egotea ondo dago. Guretako nahikoa sari zen, jada, filma ondo irte-tea, izan ditugun sari txiki horiek jasotzea eta, gehienbat, zinetik jendea irribarretsu atara eta gu zoriontzea. Hortik aurrera, hor egotea garrantzitsua da gu ezagutzera emateko, inork ez gaituelako ezagutzen. Hemendik aurrerako gauzak egiteko lagundu egingo digula uste dut. Egotea nahiko da, eta irteten bada, ba oso ondo; osterantzean, irabazten duena zorionduko dugu.

Orain arte zortea izan duzue; hor-taz, zergatik ez Goya sarietan?

Tira, guk nahi genuen pelikula egin genuen. Gure aldetik dena jarri genuen horretan. Hortik datorrena ondo etorria izango da.

Horri esker baliteke berriz ematea zinemetan *Aupa Etxebeste!* Hala ere, ez dakit, bada, inor geratu den ikusteke, ala?

Nik uste dut baietz; bailaran komentatu izan didate ikusi barik geratu dela jendea. Jende asko joan da ikustera eta berriro jartzeko aukera baldin bada, orduan eta jende gehiagok ikusiko du.

Nola joan dira emanaldiak?

Oso ondo. Azkeneko datuen arabera, 65.000 lagunek ikusi dute, eta datu oso polita da.

Goya sarietara dotore-dotore joango zarete?

Egoki joango gara. Ez zaigu nabarmenkerietan aritzea gustatzen.



Asier Altuna.

Eta epaimahaikideak konbentzitu behar izanez gero?

Telmo Esnal eta biok futbol talde bat izango bagina, hiltzeraino joango ginateteke, baina gure esku ez dagoenez eta ez garenez kanpaina egitearen oso aldekoak ere, bada, hara joango gara eta ondo pasatzen saiatuko gara.



AKORDEOIA | ARETXABALETAKO ORKESTRA

Gabonetako kontzertua egin zuen Aretxabaletako Akordeoi Orkestrak zapatu iluntzean parrokan. Emanaldia ireki zuten 9 urteko Julen Madinabeitiak -urrezko domina A mailan Arrasateko akordeoi lehiaketan- eta haren ondotik 15 urteko Unai Mendikutek jo zuen -urrezko domina junior mailan-. Emanaldia Akordeoi Orkestrak itxi zuen -urrezko domina lehiaketa berean-. | A.G.

Durangon salgai

liburuak • hiztegiak • aldizkaria • multimedia CD-ROMak • ikus-entzunezkoak • katalogoa

ELHUYAR
Zelai Haundi, 3 • Osinalde ind. • 20170 Usurbil • tel.: 943 36 30 40
elhuyar@elhuyar.com • www.elhuyar.org/denda

GURE IRRATIA BIDE GURUTZEAN

EUSKARAK eta GURE IRRATIAK BEHAR ZAITUZTE

Ipar Euskal Herrian euskararen desagerpena onartezina delako zure diru ekarpena beharrezkoa da:
-Euskadiko Kutxa 3035 0059 81 0590071330

GURE IRRATIA
Zure Irratia 106.6 - 90.6 FM

Gure Lokala

GABONETAKO KONTZERTUA BERGARAN | HERRIKO ABESBATZEK, BANDAK ETA ORKESTRA SINFONIKOAK PARTE HARTU ZUTEN

Entzuleen txalok argi laga zuten saioa gustuko izan zutela; 'tuttia', batik bat

Orfeoiak 'Seussen Mundua' musikalaren hiru pasarte aurreratu zituen

Monika Belastegi

Ezuste atseginez betetako Gabonetako kontzertua izan zen zapatu gauean Bergaran. Tradizio handiko ekitaldia da herrian, ez ditu alferrik bete 25 urte, eta ohi bezala lepo bete zen Udal Pilotalekua. Herrian dagoen musika zaletasunaren eta parte hartu zuten 300 bat musikaririk urtean barrena egiten duten lan handiaren erakusleho da. Emanaldiak ez zuten inor sorgor utzi.

HERRIKO BOST TALDE

Bergarako Udal Musika Bandak, Aritzeta Abesbatzak, Orkestra Sinfonikoak eta Orfeoiak eta Gabero Abesbatzak –horiek elkarrekin– egin zuten emanaldia. Parte hartzeko ordena ere horixe izan zuten, urtero bezala.

Udal Musika Bandak ireki zuten emanaldia Bert Appermont maisuaren *Saga Candida* suitearekin. Aritzeta abesbatzari dago-kionez, lau kantu egin zituen eta aipatzekoa da *Al Nacimiento del Hijo de Dios* Gabon kantari Joxe Arrietak egin zuen bakarkako lana, Enrike Txurrukak pianoan lagunduta. Orkestra Sinfonikoak ere lan ederra egin zuen: batetik, Von Superen *La Bella Galatea* obertura egin zuen, eta, bestetik, Manuel de Fallaren *Amor Brujoko Danza Ritual del Fuego*.

Orfeoiak eta Gabero abesbatzak, bestalde, hilaren 27an, 28an eta 29an Euskaldunan egingo duten *Seussen Mundua* musikalaren aurrerapen txikia egiteko aprobetxatu zuten.

BUKAERAKO 'TUTTIA'

Emanaldia bukatzeko *The Prince of Egypt* filmeko *Deliver Us* kantua egin zuten talde guztiek elkarrekin, Alfredo Gz. Chirlaqueren zuzendaritzapean; eta Ainara Ortega abeslari hernaniarrak bakarlarri jardun zuen. Entzuleak aho zabalik utzi gintuzten. Agurtzeko, *Adeste Fideles* Gabon kantua egin zuten ohiturari jarraituz.



JOSETXO ARANTZABAL

Jai batzordean egindako lanagatik merezitako omenaldia

Bukaerako *tuttia*-ren aurretik, omenaldia jaso zuten herrian oso ezagun diren hiru pertsonak. Felix Beitia, Luis Mari Gutierrez eta Felix Iñiguez de Herediak 25 urtetik gora daramate Jai batzordean lanean, eta denbora horretan guztian egindako lana eta herriko taldeei eskainitako laguntza eskertu nahi izan zizkieten zapatu gauean musikariek zein Udaleko arduradunek. Victoriano Gallastegi alkatearen eta Luis Abajo Kultura zinegotziaren eskutik jaso zituzten oroigarria eta besarkada beroa.



GABON OPARIRIK EDERRENA

Bergara aldeko hiztegia
Juan Martin Elexpuru

ANTOSIÑ, antosiña.
(a). *iz.* Ura edateko erabiltzen den eskuleku bakarreko metalezko ontzitzoa. • Acetre, bacineta. *Kaletik etorri ita antosinkara ura eran neban danga-danga.* (in. txolet (Ub.).

antosiña

ANTS, antsa. (d). *iz.* Hatsa, kiratsa, usain txarra. • Hedatzen duen bategarri bat. *Antsiaz batera egundoko antsa sentidu juat!* Etxakian antsa, baiña joaten eztan antsa jaok etxian. Guztia, familia batzuetan hitz arrunta bada ere. Usain txarra esanena.

ANTSITU. (d, Eib.). *ad.* "Pudirse, descomponer." *baiño len antsitu jako arraiña.*" (Etxba Eib). S

Bergara aldeko berbak eta langintza zaharrak
liburu bilduma



BILDUMAKO LIBURUAK

- Linua, ehuna eta artilea
- Txondorrak, karobiak eta elurzuloak
- Zura: arotzak eta etxegileak
- Burdina: errementariak eta perratzaileak

Prezioa

30 €

EZAUGARRIAK

- 12.000 sarrera
- 800 argazkia, mapa eta koadro
- 768 orrialde

Prezioa

Liburu bat: 9 €
Bilduma: 30 €



Bergarako Udala
Euskara batzordea

grupo
amuebladora
mondragonesa

Beherapen bereziak erakusketa aldaketagatik



centro hogar MUEBLES

Zigarrola 1, 6. pabilioia
Tel.: 943 77 14 92



banak importa

Gabonetan 15 euro opari
egingo dizkizugu

Zatoz
BANAK IMPORTA ARRASATE
ra eta jaso ezazu zure
opari-txartela



BANAK IMPORTA ARRASATE
Zerkaosteta 3 - 20500 Arrasate - Tel.: 943 71 10 11



Jaiotza presta ezazu



Opariak egiteko aukera
paregabeak izango dituzu



Gabonetako mahaia aton ezazu



Egongela apain ezazu



Eta umeak bezala
diberti zaitez

HUHEZIKo irakaslea da Julia eta 20 urte dira Britainia Handitik Euskal Herrira etorri zela. Tesia EHUUn egin zuen, 2002an, eta orain, lan hartan oinarrituta *Early*

Trilingualism liburua kaleratu du. Gurekin izan denean, oraindik esku artean jaso barik zuen liburua, baina argitaletxeak Gabonetarako agindu dio. Liburuan jaso du

ingelesez, euskaraz eta gaztelaniaz aldi berean ikasi duen bere alabak galderak ingelesez egiteko orduan eleaniztasunak nola eragin dion.

JULIA BARNES | HUHEZI-KO IRAKASLEA ETA 'EARLY TRILINGUALISM' LIBURUAREN EGILEA

"Ingelesez galdetzerakoan euskararen eta gaztelaniaren eragina zuen gure alabak"

Marijo Deogracias

Ingelesez argitaratuko duzu *Early Trilingualism*. Hasteko, nola itzultzen duzu lanaren izenburua?

Eleaniztasun goiztiarra, horixe da liburuan eta aurretik egin dako tesian laburbiltzen dena. Nire kasuan, ingelesa, gaztelania eta euskara.

Eta zerk eraman zaitu eleaniztasun goiztiar hori aztertzerara?

Gure seme-alabek. Hirurek hiru hizkuntzak dituzte; etxetik euskara eta ingelesa eta kaletik gaztelania. Hasieratik interesa piztu zitzaidan euren ikasketa prozesuan sakontzeko. Lehenengo bi semeei grabaketak egin nizkion eta hirugarrenari jarraipena egitea erabaki nuen.

Alabaren hizkuntzen ikasketa prozesuan oinarritu zinen tesia egiteko. Bada, zein zen tesiaren helburua?

Helburua hizkuntza nola jasotzen den erakustea zen, baina hizkuntza oso-osorik izugarritzko lana denez, zati baten zentratu naiz: galderetan; hau da, galderak egiteko eran: galderak ingelesez nola ikasten dituen eta gero nola ikasten diren euskaraz eta gaztelaniaz. Hortik euskarak eta gaztelaniak ingelesezko galderak egiteko eran duten eraginean sakondu dut. Oso garrantzitsua da kontuan izatea alabak ingeleserako zuen erreferentzia bakarria neu nintzala; hortaz, oso mugatuta zuela hizkuntza bakoitzaren erabilera.

Euskarak eta gaztelaniak, ingelesez galderak egiteko eran diozu, baina edozein hizkuntzak era berean eragingo luke?

Interesgarriena da uste nuela inolako eraginik ez zuela, gauzak banatuta ikasten direlako. Baina gramatikaren egituretan erreparatuz gero, galderen egituretan, esaterako, gaztelaniaren eta euskararen eragina sumatzen da. Gure alabak galderak ume ingeles batek egingo lituzkeen moduan egiten zituen, bai-

na askoz ere inonazio handiagoarekin, eta hori euskararen eta gaztelaniaren eraginez da. **Horren susmoa zenuen ikerketarekin hasi zinenen?**

Egia esateko ez. Eragina txikia izango zela uste nuen. Hasiera baten hainbat berbatan bakarrik igarri nuen eragina, baina gramatika aztertzeke orduan galderak euskara eta gaztelaniazko kantukerarekin egiten zituela igarri nuen. Eta hori niretako sorpresa izan zen.

Alabaren ikasketa prozesua jarraitu duzu, orduan, tesia garatzeko.

Jenny, alaba txikiena, ikertu dut. Eta horretaz gainera, adin bereko ume elebarraren grabaketen transkripzioak eta elebidunenak ere erabili ditut. Urte bat eta hamaika hilabete zuenetik eta hiru urte eta sei hilabete izan zituen arte egin nion jarraipena.

Jakin dudanaqatik, zure lana mugarrira omen da eleaniztasuna ikertzen ari diren guztientzat.

Salford Unibertsitateko Charlotte Hoffman irakasleak eta EHUko Jasone Cenozek esan didate hori, baina bestelako iritziak ere egongo dira! Badakit euren biei gustatu zaiela lana, baina kontua da horrelako azterketa oso gutxi egin direla. Tesuinguru eleanitz baten hizkun-



HUHEZIn irakasle da Julia Bearnese, liburuaren azala atzean duela.

MARIJO DEOGRACIAS

tzaren ikasketaz egiten den ikerketa bakarria izateak interesa piztu du, hori baino ez.

Alabak ingelesez aritzeko duen euskararen eta gaztelaniaren eragin hori baloratzeko orduan, ona ala txarra dela esango zenuke?

Ez dut uste zentzu horretan baloratu daitekeenik. Azken baten, berak hiru hizkuntza dauka buruan eta nolabait eragin egin beharko diote, baina igarri

arren ere, ezin dezakegu jakin beste inorengan era berean eragingo zukeen. Dakidana da alabak ingelesez, orokorrean, oso ondo egiten duela –zuen adina kontuan hartuta–, baina, aldi berean, eragina igartzen zitzaion. **Hizkuntzen irakaskuntza prozesuan aplikatu daiteke zure tesia?**

Nire alaba hiru hizkuntzen eraginpean izan da, aldi berean eta portzentaje berean. Jaio zenetik hiruren eragina jaso du eta horren arabera, tesuinguru berean, eta kontuan izanik nork egiten dion ze hizkuntzatan, eragina berbera litzateke.

Garrantzitsua da hizkuntza bakoitzarekin iturri bat identifikatzea?

Bai, jakina. Ikasketa prozesu baten oso garrantzitsua da hizkuntza bakoitza non erabili behar den zehaztea.

Early Trilingualism liburu ingelesez argitaratuko da, Britainia Handiko Multilingual Matters argitaletxearekin. Baduzu euskaratzeko eskaintzarik?

Ez, baina interesgarria litzateke. Hala ere, liburu nahiko akademikoa izanik, ez dut uste bere-

hala itzuliko denik. Gustatuko litzaidake zatiren batzuk euskaratzea.

Nori zuzendutako liburu da?

Ez da publiko guztiari zuzendutako liburu, testu liburu delako. Baina hizkuntzen irakaskuntzan ari diren irakasle eta ikertzaileez gainera, ume eleanitzak dituzten gurasoendako ere interesgarri izan daiteke. Izan ere, guraso horiei adierazi behar zaie, umeari egunero tesuinguru jakin baten egiten bazaio hizkuntza bakoitza ondo baino hobeto asimilatzen dituela, umeak lotu egiten duelako jardun bakoitza hizkuntza bakoitzarekin. Umeak jakin behar du norekin aritu behar duen hizkuntza bakoitzean.

Jeeny alabak zer dio lana ikusi ostean?

Jada hamar urte ditu eta pozik dago. Ikerketa zentro izateaz gainera, liburu azalean agertzen den marrazkia egin du anaiarekin batera: galdera ikur bat marraztu dute hiru hizkuntzak aipatuz. Esperientzia polita izan da.

"Hiru seme-alabek etxetik euskara eta ingelesa eta kaletik gaztelania dakizkitez"

"Helburua zen hizkuntza nola ikasten den ikustea, galderetan oinarrituta"

"Inguru eleanitzean hizkuntza ikasketaz egin den ikerketa bakarria izateak interesa piztu du"

"Umeari egunero tesuinguru jakin baten egin behar zaio hizkuntza bakoitza"

Ohiko zinema emanaldiez gain, Gabonetako saio bereziak izango dira

Egun hauetan, 'La novia cadáver' eta 'Confidencias muy íntimas', Oñatin, eta 'Mifune', Elgetan, emango dituzte

Leire Kortabarria

Zinema eskaintza interesgarria izango dute debagoiendar zinezaleek datozen egunotan, eta baita Gabon oporretako emanaldi berezi batzuk ere.

Egun hauetan, urteko ohiko zinema programazioak jarraitzen du. Hala, gaur, astelehena, *La novia cadáver* filma emango dute Oñatiko zinema aretoan, 19:30ean. Tim Burtonen azken filma da, animaziozkoa, eta bizitzara itzultzen den hildako neska baten senargai bihurtzen den mutil baten istorioa kontatzen du.

Etzi, eguaztena, *Mifune* emango dute Elgetako Espaloia antzokian, 21:30ean. Dani-

markan egindakoa da, 1999koa. *Kresten* mutil ezkonberria da protagonista. Gurasoak hiltzen direnean, anaia gutxitua zaintzeko norbait bilatzen du, eta emagalduta agertzen da posturako. Hainbat gorabehera gertatuko dira hortik aurrera.

Azkenik, eguenean, hilak 22, *Confidencias muy íntimas* emango dute Oñatiko zinekluban, 20:00etan. William eta Anna dira protagonistak, nahaste baten ondorioz harreman berezi bat izango duten bi ezezagun.

GABONETAKO ESKAINTZA

Gabonetan, emanaldi bereziak antolatuta dituzte hainbat herrian. Aramaion, esaterako, *El Puente de San Luis Rey* (abenduak 23) eta *El Viaje del Emperador* (urtarrilak 6) emango dituzte kultura etxean. Oñatin, umeei zuzendutako *Daltontarrak Lucky Lukeren kontra* filma emango dute urtarrilaren 3an eta 4an. Eskoriatzan, *Gabonetako Ipuina* emango dute abenduaren 30ean, eta *Shin Chan-Samurai Txikia* urtarrilaren 8an, Ibarraundin.

Labur

Baron Rojo taldeak Arrasateko 3.60 aretoan joko du martitzenean

Baron Rojo heavy rock taldeak kontzertua egingo du bihar, martitzena, Arrasateko 3.60 aretoan, 23:00etan. Sarrera kopuru mugatua dagoenez, komeni da lehenbailehen erostea. 15 euro da prezioa. Taldeak disko berria du, *Perversiones*, eta horko abestiak aurkeztuko dituzte.

Ibilbide luzea du rock talde horrek. Lau musikaririk osatzen dute: Armando eta Carlos de Castrok (gitarra eta ahotsa), Angel Ariasek (baxua eta koroak) eta Jose Martosek (bateria).

Monir grabatzailearen erakusketa dago Arrasateko Arregi dendan

Monir Espainian bizi den Bengalako grabatzailearen erakusketa dago Arrasateko Arregi markoztatze dendan urtarrilaren 28ra bitartean, joan den egubakoitzean inauguratuta. 30 bat grabatulan erakusten ditu Monirrek.

Bere arloan, gaur eguneko artista onenatariko bat kontsideratuta dago Monir. Mundu osoan izan ditu erakusketak, horietako batzuk egonkorak, eta Espainiako Grabatu Sari Nazionala eman zioten 1997. urtean.

'Zein polita den Panama' txotxongilo saioa egingo dute Aretxabaletan

Deja Bü taldeak umeei zuzendutako *Zein polita den Panama* delako txotxongilo saioa egingo du bihar, martitzena, Aretxabaletako udaletxe zaharrean, 17:00etan, Loramendi euskara elkarteak antolatuta. Ordu bete inguru irauten du.

Istorioko protagonista *Tigre Txiki* eta *Hartza* dira. Erreka baten baten bizi dira pozik baina, halako baten, *Hartza*-k Panamatik heldutako kaxa bat topatzen du eta, haren platano usainak erakarrira, biak Panamara joatea erabakitzen dute.

Hitzorduak



II. MENDIA ETA NATURA LEHIAKETAKO ARGAZKIAK ERAKUSKETAN DAUDE |

Mendia eta Natura saileko lehen saria bergarar bati, Juan Jose Lopezzi, eman diote

Oñatiko Aloña Mendi kirol elkarteak antolatutako II. Mendia eta Natura argazki lehiaketak arrakastan izan du: 150 bat argazki jaso dituzte, Euskal Herri osotik ez ezik, kanpotik ere bai. Orain, lan horiek erakusketan ipini dituzte kultura etxean. Bisitatzeko aukera dago egunero, 18:30etik 20:30era.

Sariak hauendako izan dira: Mendia eta Natura sailean, Juan Jose Lopez (Bergara), Javier Pedro Fernandez (Berango) eta Jose Mari Llavo (Zarautz), eta Ingurumenari Kalteak sailean, Javier Pedro Fernandez, Iñaki Kaperotxipi (Zarautz) eta Enrique Benitez (Zarautz).

ERAKUSKETAK |

- **Emakume bat hezitzea herri bat hezitzea da erakusketa**
Emakume bat hezitzea herri bat hezitzea da izeneko erakusketa izango da Oñatin, Elkar Hezi ikastetxearen Santa Marinako egoitzan hilaren 23ra bitartean, 08:00-12:30 eta 14:45-16:45 orduetean.

IKASTAROAK |

- **Zeinuen hizkuntzaren ikastaroa antolatu dute**
Bergarako Udaleko Gizarte Ongizate sailaren laguntzarekin, gorrekin komunikazio ahalmenak hobetu nahi dituztenen zeinuen hizkuntza ikastaroa antolatu du Aransgik. Ikastaroa hogeita hamar ordukoa izango da. Eskolak Bergarako Aransgi ikastetxean izango dira, urtarrilaren 10etik aurrera, martitzenero, 19:00etatik 21:00etara. Izene-matea zabalik dago eta interesatuek Aransgira edo 943 76 27 03 telefono zenbakira jo dezakete argibide eske. Plaza mugatuak izango dira.
- **Gehixago eta Hobeto programan izena emateko**
Gehixago eta Hobeto programaren barnean, helduendako eguneroko euskara hobetzeko ikastaroak antolatu dituzte. Izena emateko aukera dago abenduaren 21era, eguaztenera, bitartean, seme-alaben ikas-

tetxean edo Bergarako Udal Euskara Zerbitzuan.

- **Hainbat ikastaro Kultura zerbitzuaren eskutik**
Barreterapia ikastaroa urtarrilaren 9tik martxoaren 27ra, astelehenean, 19:00etatik 21:00etara; sukaldaritza begetariano eta nutrizioa eguaztentean, 19:00etatik 21:30era eta sabel dantza ikastaroa egubakoitzetan, 19:00etatik 21:00etara. Izena emateko epea abenduaren 23ra arte dago zabalik, eta horretarako telefonoa hauxe da: 943 77 91 58.
- **Internet ikastaroak**
Arrasateko KZgunean
Honako Internet ikastaroak daude KZgunean: oinarrizko Internet (egunero, goizez edo arratsalde); eta itsasoaren gainekoa (gaur, astelehena, hilak 19, 09:00-10:00).
- **Bergarako KZguneako ikastaro eskaintza**
Internet hasiera ikastaroa izango da KZgunean abenduaren 23ra bitartean, 09:00etatik 11:00etara edo 16:00etatik 18:00etara. Era berean, bankezteko mugimenduak Internet bidez egiteko ikastaroa eman dute abenduaren 19an eta 20an. Argibideetarako, deitu 943 76 73 24 telefonora.
- **Internetez aseguruak kontratatzen ikasteko modua**
Internetez aseguruak kontratatzen ikasteko jardunaldia izan-

go da hilaren 21ean, eguaztena, Elgetako KZgunean, 18:00-19:00 orduetean.

- **Egunkaria Internetez irakurtzeko ikastaroa**
Zure egunkaria irakurri delako Internet ikastaroa emango dute egubakoitzean, hilak 23, Eskoriatzako KZgunean, 17:00etatik 18:00etara.
- **Asteburu bat Euskal Herrian Internet ikastaroa**
Asteburu bat Euskal Herrian ikastaroa emango dute gaur, egubakoitzean, Leintz Gatzagako KZgunean, 17:00etatik 19:00etara bitartean.

MUSIKA |

- **Leizarra musika eskolako Gabonetako kontzertua**
Aretxabaletako Leizarra musika eskolako ikasleek Gabonetako kontzertua egingo dute eguaztentean, hilak 21, parrokiaren, 18:30ean.
- **Slack Water Jack-en emanaldia Jam aretoan**
Slack Water Jack eta beste talde batek joko dute egubakoitzean, hilak 23, Bergarako Jam aretoan.
- **VI. Erretiratuen Abesbatzen Topaketa dago Arrasaten**
Gipuzkoako 13 taldek abestuko dute VI. Erretiratuen Abesbatzen Topaketan bihar, martitzena, Amaia antzokian, 16:00etan, Gipuzkoako Erretiratuen Elkarteak antolatuta.

Zorion agurrak



ARRASATE
Irati Gutierrez
Abenduaren 18an,
7 urte. Zorionak eta
aupa, fenomeno!
Etxekoak.



ARRASATE
Mikel Ozeja
Abenduaren 18an,
22 urte. Zorionak,
biriken partetik.
TXRRM-SKY Crew.



ARRASATE
Jokin Orobengoa
Abenduaren 18an,
22 urte. Bizarrik gabe
ere guapo zaude.
Matrakakoak.



ARRASATE
Ane Berezibar
Abenduaren 19an,
32 urte. Zorionak,
bere-bere! Goienako
lankideen partetik.



ARRASATE
Imanol Elortza
Abenduaren 24an,
25 urte. Zorionak,
Goienako lankideen
partetik.



ARRASATE
Irene Lasaga
Abenduaren 24an, 11
urte. Zorionak eta
musu bat! Etxekoak
eta lagunak.



ARRASATE
Iñigo Lasaga
Abenduaren 25ean,
9 urte. Zorionak eta
patxo bat! Etxekoak
eta lagunak.



ARRASATE
Alai Arregi
Abenduaren 25ean,
7 urte. Zorionak,
eta patxo handi bat!
Etxekoak.



ARRASATE
**Larraitz
Arriolabengoa**
Abenduaren 29an,
urteak. Zorionak!
Oihan eta aitaxo.



ARRASATE
Markel Vicente
Abenduaren 31n,
urtebetetzea.
Zorionak, eta for-
mal ibili! Lagunak!



ARRASATE
Leire Fernandez
Urtarrilaren 1ean,
urtebetetzea.
Zorionak eta patxo
bat! Familiakoak.



ARRASATE
**Xabier
Barrutiabengoa**
Urtarrilaren 2an.
Zorionak, *Pelos!*
Koadrilakoak.



BERGARA
Irati Elortza
Abenduaren 8an, 8
urte. Zorionak,
familia: bereziki
Irene eta Jone.



BERGARA
Naia Estevez
Abenduaren 15ean,
2 urte. Zorionak!
Etxekoak eta
June.



BERGARA
Sara Landa
Abenduaren 18an,
4 urte. Urte askota-
rako! Gurasoak eta
Beñat.



BERGARA
**Markel
Muniategiandikoetxea**
Abenduaren 18an,
7 urte. Urte askotara-
ko! Familiakoak.



BERGARA
Urko Sarobe
Abenduaren 27an,
8 urte. Zorionak
eta urte askotara-
ko! Familiakoak.



BERGARA
Amaia Elortza
Abenduaren 22an,
7 urte. Zorionak,
printzesa! Gurasoak
eta Maddi.



ARETXABAETA
Eli Trojaola
Abenduaren 15ean,
26 urte. Zorionak!!!
Koadrilakoen
partetik.



ESKORITATZA
Mikel Cabeza
Hilaren 22an, urtebe-
te. Patxo bat. Osaba-
izebak, Alex, aitona
Jose eta amona Flor.



ANTZUOLA
Miren Iturbe
Abenduaren 18an,
25 urte. Zorionak,
Goienako lankideen
partetik.



ORDIZIA
Iban Toledo
Abenduaren 22an,
27 urte. Zorionak,
chorbin! Lankideen
partetik.

Zorionak!
Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
ASTELEHENEKO GOIENKARIAren bidez!
Ekar ezazu bere argazkia, eta emai-zuzteko ederra!

Jaiotakoak



Eneko Valor Heisi
Bergara • 3,100 Kg. Abenduak 12.
Gurasoak: Asun eta Joakin
(Bergara).
Argazkian: Eneko, gurasoekin,
begiak zabalik begira dela.



Berezi Garcia Lonbide
Aretxabaleta • 2,970 Kg.
Abenduak 13. Gurasoak: Charo
eta Jose Luis (Aretxabaleta).
Argazkian: Berezi gurasoekin,
bapo lo.



Jon Ortueta de Fresno
Eskoriatza • 3,050 Kg. Abenduak
13. Gurasoak: Arantzazu
(Aretxabaleta) eta Mikel
(Eskoriatza). Argazkian: Jon, ama
eta Mikel eta Alaitz anai-arrebekin.



Unax Kortabarria Markaide
Aretxabaleta • 2,900 Kg.
Abenduak 14. Gurasoak: Irantzu
(Eskoriatza) eta Xabin
(Aretxabaleta). Argazkian: Unax,
amaren besoetan, bapo lo.



Martin Astondoa Fuensanta
Aretxabaleta • 3,650 Kg.
Abenduak 14. Gurasoak: M^a
Carmen eta Carlos
(Aretxabaleta). Argazkian: Martin
amaren besoetan, amari adi.



Aitor Zubiagirren Anduaga
Oñati • 3,675 Kg.
Abenduak 15. Gurasoak: Belen eta
Andres (Oñati).
Argazkian: Aitor amaren besoe-
tan, bapo-bapo.



Jon Torres Loiti
Arrasate • 2,790 Kg. Abenduak
16. Gurasoak: Nagore (Oñati) eta
Iñaki (Arrasates).
Argazkian: Jon, amaren besoetan
bapo lo.

Hildakoak

Maria Jesus Murgizu Txintxurreta.
Bergaran, abenduaren 6an. 82 urte.
Pedro Mari Lizarraga Orbeago.
Arrasaten, abenduaren 6an. 56 urte.
Balentina Errasti Bolinaga.
Arrasaten, abenduaren 8an. 91 urte.
Jose Luis Retolaza Errasti.
Bergaran, abenduaren 8an. 44 urte.

Josefa Lete Arriola.
Bergaran, abenduaren 9an. 80 urte.
Felisa Elkoroberezibar Maiztegi.
Bergaran, abenduaren 11n. 93 urte.
Adelina Peciña Bajo.
Arrasaten, abenduaren 13an. 79 urte.
Maria Teresa Madinabeitia Anduaga.
Arrasaten, abenduaren 13an. 77 urte.

Zoriondu ARRASATE IRRATIAN



Ikaskideak, lagunak edo
senitartekoak zoriondu
nahi badituzu, **ARRASATE
IRRATIAK**
egunero ematen dizu
aukera hori.

Bidali eskaria:
irratia@goiena.com
helbidera
edo deitu 943 71 17 31
telefonora.

Egunero,
zorion agurren tartea
ARRASATE IRRATIAN

FM107.7
**ARRASATE
IRRATIA**



ESKELAK
ASTELEHENEKO GOIENKARIAN
82 euro
943 25 05 01

%50

Happy
New Year



[TOPIC NOISY]
Ume-patina QJ-1600-1

LEHEN:

ORAIN: ~~49,95 €~~

24,95 €

www.forumsport.com

SPORTLAND
FORUM SHOPS

KIROLA ZEURE ESKURA

SPORTLAND ARRASATE
Garibai Etorbidea, 2-6

Gaur irratian

Arrasate Irratia

FM 107.7
'Igo autobusera' | 09:00

Kirola eta Euskal Herriko bertso txapelketa

Asteburuko kirol jardunaldiari gainbegiratu egingo diote irrati kideek. Horrekin batera, Irati Agirreazaldegirekin eta Unai Bergaretxerekin jardungo dute atzo jokatutako Euskal Herriko Bertso Txapelketaren finalaz.

Oñati Irratia

FM 107.4
'Udazkeneko saioa' | 12:00

Gobernuz Kanpoko Erakundeekin berbetan

Herenegun, zapatuan, Elkar Hezi ikastetxeak antolatutako elkartasun azoka egin zuten. Oñati Irrati-kazetaria Gobernuz Kanpoko Erakundeetako hainbat ordezkariarekin izan zen euren proiektuen gainean berba egiten. Bada, hori guztiori jaso dute.

Radio Euskadi

FM 98.2
'Boulevard' | 10:30

Funtzionarioen aitatasun baimenaren gainean

Euskadi Irratia

FM 104.4
'Faktoria' | 10:30

'Goienkaria'-ren gaineko erreportajea

Loiola Irratia

FM 99.8
'Kalez kale' | 12:00

Eibarko plan orokorra aurkeztuko dute

GOITB programazioa

Astelehena, 19



Futbola nagusi 'Harmailatik' saioan 21:15

Ibarreko futbol talde nagusiek etxean jokatu dituzte asteburuko partidua, eta norgehiagoka horien laburpenak ikusiko ditugu.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Behazulo.
- 14:15 Eltze beroa.
- 14:30 MI.
- 14:35 Gezi-bideak
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Munduari bueltaka: Mexiko eta Guatemala
- 15:30 MI.
- 15:35 Sendabelarrak.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Ilunpean.
- 16:15 Klipak.
- 16:30 MI.
- 16:35 Gezi-bideak
- 16:45 Albiste aurrerapena.
- 17:00 Didjeridu.
- 17:30 Motzean.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Berbaire.
- 18:15 Jaun ta jabe.
- 18:45 Albiste aurrerapena.
- 19:00 Klipak.
- 19:15 16 mm.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak.
- 20:45 Albisteak.
- 21:15 Harmailatik.
- 21:45 Berriak.
- 22:15 Harmailatik kirol saioa. Asteburuak eman duenaren gainbegiratu.
- 22:45 Albisteak.
- 23:15 Jazz zikloa.
- 23:45 Berriak.

Martitzena, 20



Mexiko eta Guatemala bisitatzera 18:15

Munduari bueltaka saioan Mexikora eta Guatemalara eramango gaituzte eta hango ohiturak ezagutzeko aukera izango dugu.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazkiak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Jazz mintegia: Iñaki Salvador.
- 14:15 Zera dio.
- 14:30 MI.
- 14:35 Gezi-bideak.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Elkartasun bideak.
- 15:30 MI.
- 15:35 Sendabelarrak.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Harmailatik.
- 16:15 Klipak.
- 16:30 MI.
- 16:35 Gezi-bideak.
- 16:45 Albisteak.
- 17:00 Jazz.
- 17:30 Danbaka.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Erreportajea: Eguraldi begiralea eta kutxara egilea.
- 18:15 Munduari bueltaka.
- 18:45 Albisteak
- 19:00 Klipak.
- 19:15 Harmailatik.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak.
- 20:45 Albisteak.
- 21:15 Ilunpean.
- 21:45 Berriak.
- 22:15 Berbaire.
- 22:45 Albisteak.
- 23:15 Behazulo.
- 23:45 Berriak.
- 00:15 Amaiera

Eguaztena, 21



'16 mm' saioan, Sexmetraia lehiaketa 22:15

Arrasateko Sexologia Zerbitzuak antolatutako Sexmetraia film laburren lehiaketako lanak ikusgai izango dituzue eguaztenean.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Berbaire.
- 14:15 Musika saioa.
- 14:30 MI.
- 14:35 Gezi-bideak.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Teknopolis.
- 15:30 MI.
- 15:35 Sendabelarrak.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Behazulo.
- 16:15 Klipak.
- 16:30 MI.
- 16:45 Albiste aurrerapena.
- 17:00 Berbaire.
- 17:30 Zera dio eta Motzean: Miguel Etxagibel.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 16 mm.
- 18:15 Teknopolis.
- 18:45 Albiste aurrerapena.
- 19:00 Klipak.
- 19:15 Didjeridu. Gazteei zuzendutako saioa
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak.
- 20:45 Albisteak.
- 21:15 Teknopolis.
- 21:45 Berriak.
- 22:15 16 mm: Sexmetraia lehiaketa.
- 22:45 Albisteak.
- 23:15 Erreportajea.
- 23:45 Berriak.
- 00:15 Amaiera

Eguena, 22



Debaioeneko albiste guztiak albistegietan 19:45

Deiane Arrietak eta Julen Iriondok aurkezten dituzten albistegietan ibarreko albiste guztiak jorratzen dituzte eguenero, goiz eta arratsalde.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Erreportajea.
- 14:15 Motzean.
- 14:30 MI.
- 14:35 Gezi-bideak.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Jaun ta Jabe.
- 15:30 MI.
- 15:35 Sendabelarrak.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Jazz mintegia.
- 16:15 Klipak.
- 16:30 MI.
- 16:35 Gezi-bideak.
- 16:45 Albiste aurrerapena.
- 17:00 16mm.
- 17:30 MKT musika.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Elkartasun bideak.
- 18:15 Iparrorratza: Pakistan.
- 18:45 Albiste aurrerapena.
- 19:00 Klipak.
- 19:15 Erreportajea.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak.
- 20:45 Albisteak.
- 21:15 Jaun ta jabe.
- 21:45 Berriak.
- 22:15 Didjeridu. Gazteei zuzendutako saioa
- 22:45 Albisteak.
- 23:00 Berbaire. Mahaingurua.
- 23:45 Berriak
- 00:15 Amaiera.

Egubakoitza, 23



Telebista kontsumoa aztergai 'Behazulo'-n 21:15

EHUko irakasle talde batek egindako ikerketaren aurkezpena platoon, eta Hik Hasi-ren Begiradaren heziketa DVD-liburuan oinarritutako erreportajea.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazkiak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Ikuskizuna.
- 14:15 Musika saioa.
- 14:30 MI. Eguraldia eta zerbitzuak.
- 14:35 Lazkao Txiki.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Iparrorratza.
- 15:30 MI.
- 15:35 Lazkao Txiki.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Didjeridu.
- 16:15 Klipak.
- 16:30 MI.
- 16:35 Lazkao Txiki.
- 16:45 Albiste aurrerapena.
- 17:00 Berbaire.
- 17:30 Eltze beroa.
- 17:45 Gaurkoak.
- 18:15 Teknopolis.
- 18:45 Albiste aurrerapena.
- 19:00 Klipak.
- 19:15 Jazz mintegia.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak.
- 20:45 Albisteak.
- 21:15 Behazulo.
- 21:45 Berriak.
- 22:15 Ilunpean.
- 22:45 Albisteak.
- 23:15 16mm.
- 23:45 Berriak.
- 00:15 Amaiera

Kamera aurrean



"Oso pozgarria da Sukia eraikuntza enpresarekin hitzarmena egin izana. Gero eta zailagoa da babesleak lortzea"

ANTON INZA | ALOÑA MENDIKO PRESIDENTEA
Berriak, 2005-12-14



"Txapelketa arrakastatsua izan da. Hala ere, gure lana ez da finalarekin amaitzen, ondoren beste fase bati ekingo diogu"

XABINO SAN SEBASTIAN | BERTSO TXAPELKETAKO ANTOLATZAILEA
Berriak, 2005-12-16

Zelan ikusi telebista modu kritikoan, 'Behazulo'-n

'Behazulo':

Egubakoitzean, abenduaren 23an, 21:15ean
Aurkezlea: Goiatz Arana

Gonbidatua: Jose Inazio Basterretxea,
EHUko irakaslea



Ikustekoa!

Abenduaren 19a: 069 zozketa

ASTELEHENKO GOIENKARIA

Harpidedunen

txokoa

Zorionak, Nati Ormazabali!

Kariberako bidaiak badu irabazlea: Oñatiko Nati Ormazabal Letamendi



Kariberako bi lagunendako bidaiaren zozketan, saria tokatu zaio Nati Ormazabal oñatiarrari.

Eskerrik asko, Asteleheneko Goienkariaren izenean, gurekin egon zareten guztioi. Gabon zoriontsuak!



Beste sari batzuk ere zozketatu ziren. Zorionak irabazleoi!

Sei gonbidapen EIBAR-LORCA futbol partidua ikusteko:

- Ander Zabala Urrutia (Eskoriatza)
- Aitzol Osa Ibaibarriaga (Bergara)
- Mikel Altuna Sagasta (Arrasate)
- Maider Goia Elkoro (Aretxabaleta)
- Jose Luis Etxebarria Izurrategi (Arrasate)
- Pedro Eguren Mendizabal (Antzuola)

Lau gonbidapen Elgetako Espaloian izango den

'Shakespeare gutxi gorabehera' antzerkirako, Ttanttaka taldearen eskutik:

- Ion Etxebarria Errasti (Aretxabaleta)
- Asun Madina Aranburu (Bergara)

Urtarrilaren 9ko sariak

Baldintzak



• **CANON** argazki-kamera bat.

• Bi gonbidapen Donostiako **AQUARIUMa** bisitatzeko. Saridun bakoitzari bi emango zaizkio.

- *Asteleheneko Goienkaria*-ko harpidedun izatea.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51

Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 18:30era.

Kuota:

Harpidetza kuota, 36 euro

2006 bukaerara arte.

ASTELEHENKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Umeendako jokoak ere zozketatu ditugu.

Zorionak irabazleoi!



- Jon Maiztegi Etxaniz (Bergara)
- Maider Uribe Barandiaran (Eskoriatza)
- Oxel Urrea Sanchez (Arrasate)
- Markel Gartzia Leturiaga (Oñati)
- Xabier Iñurrieta (Bergara)
- Josu Alegria Beitia (Eskoriatza)
- Endika Mata Igarza (Antzuola)
- Eider Monkaiola Goiti (Bergara)
- Mikel Etxebarria Egaña (Oñati)
- Liher Eguren Toledo (Bergara)
- Ander Zubia (Eskoriatza)
- Marga Zabaleta Lamariano (Arrasate)
- Eneko Ibabe Tatiegi (Oñati)
- Samira Pico Zufiria (Oñati)
- Eñaut Gardoki Isasismendi (Aretxabaleta)



Hamarrekoa

AIORA ZULAIKA | PAILAZOA

“Udalako baserri baten ondoan pasatzen nituen umetan udako oporrak”

Oihana Elortza

1. Aiora ala Pirritx da eza-gunagoa kalean? Aiora. Ezagutzen nauten guraso batzuek esaten diete seme-alabei nire aurpegiaren atzean Pirritx dagoela. Umeak saltoka ibiltzen dira nire bizkarraren atzean Pirritx ote dagoen begira, baina ez dute ikusten.

2. Ze pailazo ikusten zenuen telebistan txikia zinenean? Txirri, Mirri eta Txiribiton. Espainiako Telebistan agertzen ziren beste pailazo batzuk ere, baina ez nien ulertzen.

3. Nola bihurtu zinen Pirritx? Euskararen aldeko festa baten Takolo eta Porrotx pailazoekin batera hartu nuen parte ikuskizun baten eta gero haiek deitu zidaten galdetzeko ea Pirritx izango nintzen. Duela zortzi urte gertatu zen hori.

4. Autobusean ibili zara urte askoan hara eta hona. Gidatzea gustatzen ez zaizulako? Oso despistatua naiz eta arreta handia eskatzen dit autoa gidatzeak. Hala ere, beharra izan dudane-

an gidabaimena atera beste erre-medioren ez dut izan.

5. Takolo, Pirritx eta Porrotx sarri etortzen dira Debagoienara. Estreinaldiak ere Eskoriatzan egiten dituzue, ezta? Herri bakoitzean nahiko data antzekotan izaten gara urtero, eta Eskoriatzara azaroaren bukaera aldera etortzen gara, lan berriarekin beti. Hala ere, lehendik ere lotura handia dut nik Debagoienarekin, udako oporrek Udalan pasatzen nituen txikit.

6. Oporrak Udalan? Udala Biezkua baserriaren ondoko zelaian jartzen genuen kanpin denda eta hantxe egoten ginen uda oro lau nagusi eta sei ume. Nire lehen amodioak ere inguru hartakoak dira.

7. Zenbat denbora behar duzu aurpegia margotzeko? Pirritxi margotu behar diodanean, 20-25 minutu. Ispilu borobil txiki batekin nahikoa izaten dut. Aiorak, ordea, ez du ia denborarik behar.

8. Pintatzen dituzu oraindik koadroak? Lehen baino gutxiago.



OIHANA ELORTZA

Lasartekoa da Aiora Zulaika, baina Tolosan bizi da, eta han TAO (OTA) jarri zutenetik isun asko jarri dizkiote udaltzainek. 30 urte ditu eta bi urteko semea, Txomin. 11 urte zituela Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoen ikuskizuna ikustera joan zen eta orain taldeko kide bat da. Webgunea dute hiru pailazo horiek, eta Pirritx da on-line salmenten arduraduna.

9. Ze ordutegi du pailazo batek? Asteburuetan eta arratsaldean izaten ditugu guk ekitaldiak gehienetan. Hala ere, egunero elkartzen gara kantak, antzezlan berriak eta arropak prestatzeko.

10. Zer egingo zenuke 24 ordu zuzun egiteko edukiz gero? Lasai gosalduta lehenengo. Gero, mendi buelta bat egin, Zarauzko hondartzan bainatu eta irakurri.



Biharamuna

Marijo Deogracias

2006: kerik ez, AHT bai

Urte berritik aurrera taberna eta jatetxeetako behar-ginek erretzeko eskubidea izango dute? Ez, lanean ezingo da erre 2006tik aurrera. Eta gure atzeko mahaiko lagun horiek ezingo dira domeka goizeko pintxoak jatera etorri, umea lagun dutela? Ez, erretzea baimentzen den taberna bada. Eta, zapatu gauean nora joango dira erretzen duten lagunak? Ehun metro koadro baino gehiago dituzten erretzaileendako egokitutako lekue-tara. Eta... Nahikoa dugu! Legea ez dut nik egin, esan nien Asier eta Ismari atzo, nazka-nazka eginga. Lanera nentorren urteko azkeneko laneguna zela eta, gogoratu ziren urte berriari begira izango ditugun aldaketek.

Tabakoaren kontrako legeak buruhauste ederrak sorraraziko dizkio bati baino gehiagori, baina handiagoak izango dira AHTren inguruan sortuko direnak. Urte berriarekin hasiko ei dira lanak, Bergara-Arrasate-Gasteiz zatian. Aspaldi trena galdu genuela eta, zortedunak gara debagoiendarrak. Laster iritsiko da gurera lastertasun handiko trena. Erabat sinistuta daude Mila Elortza eta Agurtzane Diez de Uribide, AHT Gelditu! Elkar-lanean taldeko kideak.

Oientzerori ez diot nik gutunik aurten idatzi. Baina sasoz ibiliko naizelakoan, zera eskatu nahi nioke: ahal dela, urte berrian asmo on guztiak betetzeko ahalegina egin dezala eta, bide batez, inon kalterako izan daitezkeenak desagerrarazi ditzala. Ondo pasatu Gabonak.



ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea • BERGARA
Tel.: 943 03 46 30

UGARTE

AROTZTEGIA-ALTZARIAK



Arotz lanak orokorrean • Horma armairuak
Altzariak • Leihoak • Ateak



ERAKUSKETA ETA TAILERRA
San Juan 1A • BERGARA
Tel.: 943 76 54 91/ Faxa: 943 76 08 04

